

Egokitzen

Dibortzioaren ondoren esku hartzeko programa



Sanz Vázquez, M.
Corral Gilsanz, S.
Aperribai Unamuno, L.
Martínez-Pampliega, A.
Iriarte Elejalde, L.

**DIBORTZIO EGOEREN AURREAN ESKOLAN
BEHARREZKOAK DIREN JARDUNBIDE
EGOKIEN ESKULIBURUA**

DIBORTZIO EGOEREN AURREAN ESKOLAN BEHARREZKOAK DIREN JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

Profesionalentzako gida

Sanz Vázquez, M.
Corral Gilsanz, S.
Aperribai Unamuno, L.
Martínez-Pampliega, A.
Iriarte Elejalde, L.

Itzulpena: Eusko Jaurlaritza

I.S.B.N. 978-84-616-9804-2

Aurkibidea

AURKEZPENA	4
1. DIBORTZIOA GAINDITZEKO PROZESUA	6
2. HAURREK DIBORTZIO BATEN ONDOREN EPE LABURREAN JASATEN DITUZTEN ALDAKETAK	8
3. ESKOLAK DIBORTZIO KASUETAN EMAN DEZAKEEN LAGUNTZA	9
Sentimenduak.....	10
Portaerak.....	10
4. ZER IRITZI DUTE HEZKUNTZAREN MUNDUKO PROFESIONALEK? ETA GURASOEK?	18
Hezkuntzaren munduko profesionalen iritziak.....	18
Gurasoen iritziak.....	19
5. FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA: JARDUTEKO JARRAIBIDEAK	21
6. GURASOekin LANTZEKO TREBETASUN BALIAGARRI BATZUK	24
ERREFERENTZIAK	28
ERANSKINAK	32
1. ERANSKINA: Dibortzio baten ondoren izaten diren ohiko erreakzioak.....	33
2. ERANSKINA: Klaseko zeharkako jarduerak	39
3. ERANSKINA: Hezkuntza arloko profesionalak sentimenduak lantzea	42
4. ERANSKINA: Informazioa biltzeko fitxa.....	43
5. ERANSKINA: Hitzarmen erregulatzailerari buruzko informazio garrantzitsua duen fitxa.....	44
6. ERANSKINA: Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa sailaren jarraibideak eskola arlorako banaketa edo dibortzio egoeretan.....	46

AURKEZPENA

Gida honen helburua honako hau da hezkuntza arloko profesionalei beren lanaren bitartez beren familian dibortzio-egoera bat bizi duten haurrei laguntzeko beharrezkoak dituzten tresnak ematea.

Gure gizartean, dibortzioen kopurua gora egiten ari da. Egindako kalkuluen arabera, minuturo bi bikotek ematen diote amaiera ezkontzari Europar Batasunean (Familia Politikarako Institutua, 2010). Espainia, zehazki, azken 10 urteotan Europar Batasunaren barruan gorakada kuantitatibo eta kualitatiborik handiena izan duten herrialdeetako bat da.

Familia Politikarako Institutuak (2013) bere azken txostenean dioenez, azken hamar urteotan (2003-2012) 1.343.760 haustura gertatu dira gure herrialdean, eta 10etik 8 (% 78,9) dibortzioak izan dira. Azken datuen arabera, 5 urteko egonkortasunaren ondoren zifrak gora egiten hasi dira, eta hori herrialdearen hobekuntza ekonomikoaren adierazgarria dela interpretatzen da.

Fenomeno hori komunikabideetan gero eta gertaera ohikoago eta normalago gisa agertzen bada ere, oso eragin garrantzitsua du, eta ez da gutxietsi behar. Izan ere, oso garrantzitsuak dira dibortzioak seme-alabengan, eskoletan eta gizarte osoan dituen ondorioak. Ildo horretan, dibortzioa osasun publikoaren xede bihurtzeko eskatu dute zenbaitek nazioartean. Gure herrialdean, berriz, gelditasuna nagusi dela dirudi, eta ez dira baliabide nahikoak ezarri haurrei trantsizio horietan laguntzeko.

Errealitatean kokatzeko datu batzuk:

- Dibortziatuen erdiek mendeko seme-alaba adingabeak edo adindunak dituzte, eta familia-hausturaren ondorioak handiak izan daitezke horientzat (Estatistikako Institutu Nazionala, 2013).
- Dibortzioen % 80 ezkondu eta urte gutxira gertatzen da, eta seme-alaba gehienak eskolatzeko garaian egoten dira.
- Bigarren aldiz ezkonduetako senar-emazteen dibortzio-tasa lehen aldiz ezkondu-takoena baino handiagoa da (% 60). Horrek esan nahi du haurren ehuneko handi batek bi aldiz jasaten duela familia-aldaketaren eta gurasoen banantzearen prozesua.
- Dibortzioak epe ertain eta luzean seme-alabengan duen eragina seme-alabek beren bizitzan, familiaren barruan eta familiatik kanpo pertsona esanguratsuekin duten harremanaren arabera da.
- Nerabearoak norberaren identitatearen garapenean eta gurasoekiko identifikazioan dakartzan aldaketak direla-eta, hasieran gurasoen dibortziara ongi egokitzen diren haur askok zailtasunak izaten dituzte nerabearora iristean.

Ez dirudi dibortzio-tasa murriztuko denik, ezta erregulazioak aldatuta ere. Haur, nerabe, gazte eta familiekin lan egiten duten profesionalek prest egon behar dute seme-alabei egoera berrira behar bezala egokitzen eta beren garapen ebolutibo normalarekin jarraitzen lagunduko dieten baldintzak ahalbidetzeko.

Haur eta nerabeek eskolan ematen dute bizitzaren zati handi bat. Horregatik, irakasleek eta hezkuntza-eremuko beste profesional batzuek funtsezko zeregina betetzen dute prozesu horretan. Gainera, seme-alaben lehen zailtasunak eskolan agertzen dira, eta, beraz, prebentzio-lana funtsezkoa da.

Eskuliburu hau hezkuntza-eremuko profesional horiei zuzenduta dago, seme-alabek jasaten duten prozesua argitzeko asmoz egin da, eta lagungarriak izan daitezkeen jarraibide batzuk ematen ditu.

DIBORZIOA GAINDITZEKO PROZESUA

Seme-alabentzat, dibortzioa prozesu bereziki konplexua da, eta ezin da esan adin batzuk besteak baino hobekak direnik dibortziazteko. Garapenaren fase bakoitzean, haurrek eta nerabeek baliabide kognitibo eta emozional desberdinak eta eskakizun ebolutibo desberdinak izango dituzte. Kiribil moduko prozesu bat gertatzen da. Izan ere, fase bakoitzean, seme-alabek berriz aztertu nahi izango dituzte aurrez landutako alderdi batzuk, hala nola nork eragin zuen dibortzioa, zer gertatu zen, zergatik egin ziren familia-moldaketak egin ziren moduan, eta zer zeregin bete duten beraiek gurasoen dibortzian. Kontua ez da, besterik gabe, datu gehiago biltzea. Seme-alaben garapen kognitiboa dela-eta, azalpen sakonagoak, konplexuagoak eta zehatzagoak eta erantzun zintzoak behar dituzte. Garatutako balioak eta printzipioak berriz aztertuko dira: nola izan dezaket konfiantza gainekoen promesetan? Leial jokatu behar al dut lagunekin? Zer neurritaraino inplikatu behar dut harreman batean? Nola jokatu behar dut min ematen didaten pertsonen aurrean?

Dibortzioak seme-alabengan duen eragina 30 urtez aztertu duen Judith Wallerstein-i jarraiki (Wallerstein, 1983; Wallerstein, Lewis eta Rosenthal, 2013), seme-alabek bete beharreko 6 zeregin psikologiko garrantzitsu daudela esan dezakegu:

- 1. Dibortzioaren errealitatea ezagutzea:** haurrek era errealista batean ulertu behar dute zer esan nahi duen dibortzioak, eta zer ondorio izango dituen. Hori ulertzeko, bi etapa daude. Hasieran, haurrek berehalako aldaketak hautemango dituzte, eta modu jakin batean mugituko dira, (fantasiaren eta errealitatearen artean dauden desberdintasunak aztertuz). Geroago, berriz, gurasoen ekintzak balioetsiko eta beren bizitzarako ondorio baliagarriak aterako dituzte.
- 2. Galerari aurre egitea:** galerarik sakonek bi dira. Bata familia oso eta batuaren galera da, horrek dakarren babes erreal eta sinbolikoarekin. Bigarrena, berriz, haurren eguneroko bizitzaren parte izateari uzten dion gurasoetako baten galera da. Zenbaitetan, familiaren antolamendua lortzen ez bada edo behar bezala azaltzen ez bada, seme-alabek abandonu gisa senti dezakete, eta arbuioaren, umilazioaren, maitasunik ezaren eta ezintasunaren sentsazioa izan dezakete. Errazagoa da seme-alabek bi gurasoekin harreman ona eta ohikoa badute, zaintza mota edozein izanik ere. Zenbaitetan, ordea, ezinezkoa da. Gainera, zenbait kasutan abandonu hori erreala izaten da, eta galerari aurre egin beharrak norberaren estimua murriztea dakar. Seme-alabek guraso hori beraiek behar duten aita/ama ez dela onartu behar dute, eta zereginik zailenetako bat da hori.
- 3. Barnerakoitasun estrategikoa:** gurasoek daukaten kezka onartzeko gauza izatea, neurri handiegian inplikatu gabe. Seme-alabek gurasoen egoera ulertu behar dute emozionalki, baina horrek ez du eraginik izan behar norberaren garapenean, hau da, seme-alaben interes, plazer, arazo eta lagunetik harremanetan. Haur izaten jarraitu behar dute.
- 4. Haserreari aurre egitea eta errua lantzea:** askotan, haurrek uste dute aita, ama edo biak direla banantzearen errudun. Dibortzioa heriotza bezain saihestezina ez dela iruditzen zaie, eta beren premien aurrean agertuko axolagabekeria-egintza bat dela uste dute. Horregatik, haserre sentitzen dira.

Babestu behar dituzten pertsonak min ematen dieten pertsonak berak dira. Hori dela-eta, haserre gainditzea eta aita eta ama huts egin dezaketengizakiak direla eta beren

ahalegin eta kemenagatik errespetatu behar dituztela ulertzea izango da zereginetako bat. Hori heldutasun emozionalarekin lotuta dago. Gurasoei barkatzen dietenean, beren buruari barkatzen diote haserretu izanagatik, errudun sentitu izanagatik eta gurasoek elkarrekin jarraitzea lortu ez izanagatik. Haur txikiak dibortzioaren erantzule sentitu ohi dira, eta beharbada beren okerreko portaerak edo beren jaiotzak gurasoetako batek alde egitea edo, behintzat, elkarren artean zailtasunak agertzea eragin duela pentsatzen dute. Alabengan maizago gertatu ohi da hori. Beren ama nahigabetuarengandik urruntzearen beldur dira, eta errudun sentitzen dira exetik irten eta beren adin bereko beste pertsona batzuekin ondo pasatu nahi izateagatik.

- 5. Dibortzioaren izaera iraunkorra onartzea:** hasieran, seme-alaba askok ez dute dibortzioa onartu nahi izaten, eta batzuek berdin jarraitzen dute bost edo hamar urteren ondoren. Gurasoak adiskidetu diren ametsa oso ohikoa izaten da, baita guraso bakoitzak familia berria osatu duenean ere.
- 6. Harremanen inguruko itzaropen errealistak garatzea:** arrakasta lortzeko zein porrota jasateko aukerak daudela, maitatu dezaketela eta maitatuak izan daitezkeela, dibortzioaren arriskua hartzeak merezi duela, baina konpromisora, ezkontzara eta leialtasunera irekita egotea. Ez da erraza, batez ere familian bertan adibide kontraesankorrak izan dituztenean.

2

HAURREK DIBORTZIO BATEN ONDOREN EPE LABURREAN JASATEN DITUZTEN ALDAKETAK

Banantzea eta dibortzioa ez dira gertakari puntualak, haurrengan eragina duten hainbat familia-aldaketa dakartzan prozesuak baizik. Haurrek gehien jasaten dituzten aldaketak honako hauek dira (Martínez-Pampliega, Iriarte, eta Sanz, 2014):

- Gurasoetako baten galera edo harreman txikiagoa.
- Diru-sarrera ekonomikoen eta bizi-mailaren murrizketa.
- Bizilekuaren, ikastetxearen, auzotarren, lagunen eta abarren aldaketa.
- Familia berri batera (eta kide berrietara) egokitu beharra.

Aldaketa horiek direla-eta, dibortzioa oso esperientzia zaila da seme-alabentzat. Beren ongizatearen inguruko antsietate handia sorrarazten die, eta mezu bat bidaliz, tentsioaren edo ziurgabetasunaren aurrean protesta eginez eta abar erreakzionatzen dute.

Zeintzuk dira sintoma horiek? Askotarikoak dira: lo egiteko zailtasuna, tristura, agresibitatea, eskola-arazoak, fobiak, obsesioak, konpultsioak eta antzeko sintomak. Sintoma horiek desberdinak izan daitezke une ebolutiboaren arabera. Egile askok sistematizatu dituzte erreakziorik ohikoenak une ebolutiboaren arabera. I. Eranskinean, erreakzio horiek xehatuta agertzen dira, Pedro-Carroll-en (2010) ereduaren arabera. Halaber, gurasoengan eta irakasleengan espero den jokabideari buruzko orientazio batzuk ematen dira.

Normala da haurrek sentimendu horiek izatea prozesuaren hasieran, banantzea gertatzen ari denean, baita banandu eta hainbat hilabetetan ere. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi gauza problematikoa edo patologikoa izan behar duenik.

Noiz izan daiteke problematikoa? Erreakzioak:

1. Gehiegi irauten dutenean.
2. Oso era bizian agertzen direnean.
3. Eguneroko jarduerekin jarraitzea eta eguneroko interesak eragozten dizkienean.

Kronikotasuna da, zalantzarik gabe, faktorerik garrantzitsuenak. Epe luzerako erreakzioak – emozioei nahiz jokabideei lotutakoak – ez dira saihestezinak. Dena dela, egokitze-arazoek iraun egiten dute aitak eta amak elkarrekiko etsaitasuna agertzen jarraitzen badute eta haurrak gatazkan inplikatzeko badituzte.



3

ESKOLAK DIBORTZIO KASUETAN EMAN DEZAKEEN LAGUNTZA

Gaur egun, eskolak funtsezko zeregina betetzen du haurren esperientzietan eta garapenean. Izan ere, eguneroko bizitzaren parte da, eta esperientzia eta harreman berriak eskaintzen ditu, pertsona helduekin zein berdinekin. Haurrik txikienen kasuan bereziki, segurtasuna eta konfiantza funtsezkoak dira, horietan oinarrituta burutuko baitira esplorazio- eta sozializazio-portaerak. Horretarako, eskola inplikatu egin behar da, eta giro segurua, beroa eta estimulatzailerak bultzatu behar du, baita harreman onak ere irakasleen eta haurren artean zein berdinen artean.

Haurra Haur Hezkuntzako eskolan hasten denean, irakasleek eta gurasoek lankidetzan jardun behar dute haurrak gurasoengan duen lotura eta konfiantza irakaslearekin ere garatzeko. Une horretatik aurrera, Haur Hezkuntzako profesionala harremana seguru bat sortzen eta finkatzen saiatuko da haurrekin izango duen harremanean. Era horretan, haurra seguru, konfiantzarekin, hurbil eta maitatua sentituko da, eta bere garapenerako jokabide egokiak aktibatu ahal izango ditu. Anibalentzia agertzen duten haurren kasuan, gainera, irakasleak maitasunez eta kontsolamenduz erantzun behar du hurbilketa-jokabideen aurrean zein arbuio-jokabideen (jokabide gatazkatsuen) aurrean, haurra eta profesionalaren arteko harremana garatzeko.

Dibortzio-egoera bat bizi duten haurrei dagokienez, segurtasunari, egonkortasunari, jarraitutasunari eta konfiantzari lotutako erreferentzia bihur daiteke eskola. Izan ere, familia (hots, erreferentzia nagusia) ezegonkortze- eta berregituratze-prozesu batean murgilduta dago, eta prozesu horrek estresa eragiten du inplikaturako pertsonengan. Beraz, irakasleek eta eskolako gainerako pertsona hurbilek funtsezko zeregina beteko dute haurren egonkortasunari eusteko zereginetan, bereziki Haur Hezkuntzan. Haurrak jasaten dituen gabeziak konpentsatzen lagundu ditzake eskolak,

eta aldaketei aurre egiteko eta garapen eta ikasketza egokiarekin jarraitzeko babes eta baliabide nahikoak eskain diezazkioke haurrari.

Halaber, oso ohikoa da gidaren aurreko puntuan adierazitako erreakzio gehienak eskolan agertzea. Gurasoen dibortzioa jasan duten ikasleen bi heren inguruk aldaketak izaten dituzte eskola-eremuan. Zenbaitetan, gurasoak ez dira konturatzen haurrek dibortzioaren ondoren izaten dituzten jokabide-aldaketa horietaz, baina hezkuntza arloko profesionalak suma ditzakete.

Hezkuntza arloko profesionala oso egoera onean dago dibortzio bat bizi duten haurrei laguntzeko, bere zuzeneko harremanaren bidez beren adinerako portaera eta garapen egokia duten haurrak eta ez dutenak ikusi, konparatu eta bereizi egin baititzake.

Horrela, beraz, irakasleek sistematikoki behatu behar dute haurra, une eta egoera desberdinetan: ikasgelan, jolas-orduan, beste heldu batzuekiko eta beste haur batzuekiko harremanetan, eskola-errendimenduan eta abar.

Illo horretan, kontuan hartu behar da dibortzio-egoeraren aurrean haurrak ez direla gai izaten beren kabuz laguntza eskatzeko. Are gehiago, haur txikiek ezin dituzte identifikatu, beren gain hartu, izendatu eta bereizi esperimenduetan dituzten emozioak. Gainera, baliteke haurrak nahasita sentiaraziko duten emozio kontraesankorrak izatea. Hori dela-eta, garrantzitsua da hezkuntza arloko profesionalak dibortzioaren aurrean agertzen diren portaera batzuk interpretatzen jakitea. Edonola ere, kontu handiz jokatu behar dugu; izan ere, hezkuntza arloko profesionalak dibortzio-egoera bat bizi duten haurren inguruan dituzten igurikapenei buruz egindako azterlan batzuek agerian utzi dutenez, profesionalak oinarririk gabeko suposizio negatiboak egiten dituzte maiz haur horien inguruan.

Nolanahi ere, gurasoen dibortzioaren eragina ez da berdina izaten egoera hori bizi duten haur guztiengan. Adierazpenak ere desberdinak izaten dira adinaren arabera. Adibidez, larritasuna eta tristura erraz ikus daitezke haur txikiengan; nerabeek izaten dituzten beste min mota batzuk, berriz, nekez hauteman daitezke.

Nolanahi ere, beti ez da erraza izaten adierazpen horiek detektatzea, adin jakin batzuetan haur gehienengan ager baitaitezke. Erreakzioak, adinaren araberrakoak ez ezik, izaearen, baliabideen eta abarren araberrakoak ere badira. Ildo horretan, haurrek gurasoen arteko gatazken larritasuna eta maiztasuna handia dela ikusten badute, handiagoa izango da portaeretan agertuko duten antsietate-maila.

Hezkuntza arloko profesionalak ikasleengan izaten diren aldaketa horien kontzientzia hartzen ikas dezake, eta, era horretan, laguntza eskain diezaieke haurrei. Gainera, haur bat familiar dibortzio-egoera bat bizitzen ari dela alde aurretik jakinez gero, hurbil-hurbiletik ikusi ahal izango ditu haurraren agertzen diren aldaketak.

Ondoren, era espezifikagoan azalduko ditugu irakasleek haurraren dibortzio baten ondoren detektatu izan dituzten sentimendu eta portaera batzuk (Clerget, 2006; Robledo Bucio, 2010). Guztiak "ohartarazpen-seinaleak" izan daitezke hezkuntza arloko profesionalentzat.

SENTIMENDUAK

- 1. Tristura eta abaildura.** Baliteke haurra intzirik hastea, negar egitea edota bakarrik egon nahi izatea. Tristura-sentimenduekin batera, autostimu txikiabaxua, isolamendu emozionala eta sintoma fisikoak (buruko mina, urdaileko mina eta abar) ager daitezke.
- 2. Erruduntasuna.** Haurrak gurasoen dibortzioa edo banantzea berak eragin duela (hau da, egoera hori agertzeko gauza "txarren" bat egin duela) pentsatu ohi du sarritan, hau da, egoera hori agertzeko gauza "txarren" bat egin duela.
- 3. Beldurra eta antsietatea.** Haurrak egungo zirkunstantzietan berarekin zer gertatuko den jakin nahi du ("Zer gertatuko da nire amak/aitak ni ere uztea erabakitzen badu?", "Orain arteko gauzak egiten jarraituko al dut?", "Non biziko naiz?", "Aitona-amonak ikusten jarraitu ahal izango al dut?").

4. Lotsa. Askotan, haurrak lotsa sentitzen du gurasoak banandu egin direla esatean, gainerako ikaskideen desberdin sentitzen baita. Pentsa dezake, halaber, antzeko egoera batean dauden gurasoak dituen bakarra edo ia bakarra dela.

5. Haserre. Haserrearen edo amorru gordearen sentimendua ager daiteke, nerabezaroan batez ere. Ohikoa izaten da haurrarekin bizi ez den gurasoaren aurkako sumindura bizia agertzea eta bestearekin aliantza tinko bat egitea. Halaber, bi gurasoen portaerarekin haserre senti dezake haurrak, eragin duten egoeragatik.

PORTAERAK

1. Jokabide erregresiboak. I. Eranskinean ikus daitekeenez, haur askok ikaskuntzan izaten dituzten atzerapenen bidez agertzen dute antsietatea. Hona hemen ohikoenetako batzuk: ume txikiak bezala hitz egitea, hatza miazkatzea, kasketak izatea, bakarrik lo egiteko beldurra eta abar.

2. Banatze zailtasunak. Dibortzioaren ondoren haurraren ikusitako jokabide asko atxikimenduari eta banantzeak eragindako antsietateari lotuta daude. Haur horiei kosta egiten zaie aita/amarengandik urruntzea dibortzioaren esperientziaren ondoren. Halaber, ikastetxeko helduekiko afektu edo atxikimendu handiegia agertu ohi dute.

3. Ikaskideekiko hainbat agresibitate mota. Haurrak arestian adierazitako sentimenduetatik itota sentitzen direlako, sentimendu horiek adierazten ez dakitelako edo era heldugabeen adierazten dituztelako (irain, iseka, borroka eta abarren bidez) ager daiteke agresibitatea. Zenbaitetan, halaber, ikaskideen marjinazioa jasaten dute, eta horiekiko harremanaren narriadura eragin dezake horrek.

4. Eskola-zereginetikiko interes txikiagoa. Haur batzuek klasean gelan parte hartzeari uzten diote: (ez dute eskua jasotzen altxatzen, ez dituzte ikasgaiak ikasten, etxeko lanak ez dituzte egiten edo oso laster amaitzen dituzte, edota gero eta gutxiagotan jolasten dira ikaskideekin). Gainera, haur txikien kasuan (Haur Hezkuntzan), gerta daiteke blokeatzea edo esplorazio-jokabideetikiko interes txikiagoa agertzea.

5. Eskola-errendimenduaren beherrakada esanguratsuak. Arreta jartzeko edo zeregin akademikoekin jarraitzeko zailtasunak ager daitezke. Zenbaitetan, halaber, gurasoetako batekin

geratzean izaten diren ordutegi-aldaketek area-gotu egin ditzakete haurrek zeregina ahazteko edo egin gabe uzteko aukerak.

Haurrak horrelako sintomaren bat duenean, laguntzeko eta sintoma bakoitzarekin jokatzeko moduan pentsatu behar du profesionalak. Profesionalak neurri espezifiko batzuk har ditzake dibortzioaren gaia jarrera positiboarekin lantzeko. Hona hemen irakasleek erabil ditzaketen estrategia batzuk:

1. Ikasgelaren egiturari eustea eta eskola-errutina sendo bati jarraitzea (haur txikien kasuan batez ere). Eskola garrantzitsuagoa da dibortzioaren trantsizioa jasaten ari diren familietako haurrentzat, egitura, egonkortasuna eta jarraitutasuna eskaintzen baitie familia ezegonkortzen ari den une batean. Familia-egitura aldatzen ari den bitartean, irakaslearekiko lotura izan daiteke harremanik egonkorrena haurarentzat. Hezkuntza arloko profesionalak leku seguru eta xume bat ezar dezakete, haurrek familia-bizitzaren ikuspegia berreskura dezaten.

Ordutegien iraunkortasunak eta diziplinak segurtasuna emango die dibortzio bat jasaten ari diren familietako haurrei. Errutinan gertatutako aldaketa batek (irakasle-aldaketa batek, adibidez) segurtasun-falta eta beldurra sorraz ditzake berriz haurraren.

2. Komunikazio-kanal seguruak sortzea. Hezkuntza arloko profesionala izan daiteke haurrekin beren sentimenduei buruz hitz egiten duen pertsona heldu bakarra. Ez da

beharrezkoa aholkuak ematea edo soluzioak aurkitzen saiatzea. Aholkuen ordez, enpatia erantzun egokia izango litzateke. Profesionalak babes segurua eskainiko dio haurrari, esaten duena entzunez, besterik gabe, (inolako iritzi edo kritikarik adierazi gabe).

Hezitzaileek hainbat komunikazio-trebetasun aplika ditzakete. Hona hemen batzuk:

- Galdera irekiak erabiltzea (“Esango al didazu zer moduz zauden gaur?”)
- Entzute aktiboa erabiltzea (“Aitarekin haserre zaudela dirudi...”)
- “Ni” mezuak erabiltzea “zu” mezuen ordez (“Ezin dizut laguntza handiagoa eman, eta gaizki sentitzen naiz horregatik”)
- Argibideak eskatzea, ulertzen ez denean (“Beraz, esaten ari zara...”)

3. Haurrei gurasoen dibortzioa zehatz-mehatz ulertzen laguntzea. Haurrek ulertu behar dute eurek ez dituztela gurasoen arteko arazoak eragin, eta ezin dituztela arazo horiek konpondu. Hain zuzen ere, haur eta nerabe askok zailtasun emozional larriak izaten dituzte, bizitzen ari diren egoeraren erruduntzat hartzen baitute beren burua. Hezkuntza arloko profesionalak egoera aiposean daude haurrei beren familian gertatzen ari diren aldaketak era zehatzagoan ulertzen laguntzeko.

4. Errendimendu akademikoaren aldakortasunarekin tolerantziak jokatzea. Jardun akademikoak okerrera egitea kontu handiz interpretatu behar da; beti ez da nahita erabaki-



tako interes-falta bat izaten. Arazo horiek eta horien konponbideak haurrarekin patxadaz eta lankidetzan eztabaidatzeko erabil daiteke komunikazioa. Ildo horretan, ordutegiei eta eskolako zereginak etxean antolatzeko moduari buruz hitz egin dezakegu haurrarekin.

Hezkuntza arloko profesionalak haur horien aurrerapenak eta ahaleginak indartu beharko ditu beti. Ezin dugu ahaztu ingurune estimulatzaile eta atsegin batek ikaskuntza errazten duela.

- 5. Ezarritako mugekin eta portaeraren ondoriozko balizko zigorrekin (ondorio, muga, zigor) zuzena, zentzuzkoa eta neurrikoa izatea.** Ikasleak dibortzioa arduragabekeriaren edo jokabide txarraren aitzakia gisa erabil ez dezan, hezkuntza arloko profesionalak mugak ezarri behar dituzte. Ez da ahaztu behar debeku gutxi ezarri behar direla, eta argiak eta ikasleek ongi ulertzeko modukoak izan behar dutela (txikienean kasuan batez ere). Zigorren erabakia hartzen bada, zenbait baldintza hartu behar dira kontuan: 1) haurrak modu horretan jokatzeko zergatik jokatu duen gaizki ulertzea (beti ez da nabarmena izaten); 2) haurrak zigorra bidezkoa dela ikustea, eta 3) zigortzen duenak, zigorra jarrita ere, begirunez jokatu behar du haurrarekin, eta zigorra haurrak bere jokabidea hobetzeko lagungarria izango den uste osoa izan behar du.

Hobe izaten da beti haurraren interesa jarduerak aldatzearen edo jolas-baliabideren bat edo errutinak sartzearen bidez bideratzea (biribilean jartzea, ipuin bat entzutea eta abar).

- 6. Dibortzio-egoeretan hizkuntza positiboa erabiltzea.** Hizkuntza oso indar handiko elementua da komunikazioan. Hitzak kaltegarriak edo sendagarriak izan daitezke pertsonentzat. Karga emozional handiko topikoez hitz egiten dugunean (dibortzioaz, adibidez), oso garrantzitsua da gainerakoak epaitzeko helburua izango ez duten errespetuzko terminoak erabiltzea.

Hain zuzen ere, gai horri dagokionez, ohikoa izaten da konnotazio negatiboa duten hitzak erabiltzea, bai topikoa bera aipatzean, bai inplikaturako pertsonak aipatzean. Hori dela-eta, garrantzitsua da pertsona horiei –eta hartzen dituzten erabakiei– duintasuna eta errespetua eskaintzea, haurrek ezaugarri positiboetan oinarritutako autokontzeptu bat sortu ahal izan dezaten.

Halaber, kontsiderazio espezifikoko gisa, kontzeptu jakin batzuen erabilera zaindu beharko da, hala nola honako hauena:

- Dibortzioa: bikotearen haustura gertatu dela ulertu behar da, ez, ordea, familiarena. “Familia hautsia” eta antzeko esakerak saihestu behar dira.
- Etxea(k): haurraren etxea da (edo etxeak), ez da aitarena edo amarena. “Gaur amaren etxera joango zara” eta antzeko esakerak saihestuko dira.
- Aita/ama: bi gurasoek beren roletan eta beren atxikimendu-sistemekin jarraitzen dutela hartu behar da kontuan. Ez da gurasoetako bat bakarrik aipatuko gurasoen rolez edo funtzioez hitz egitean, egun jakin horretan funtzioaren bat nori dagokion jakin gabe (adibidez, “esan iezaiozu zure amari koadernoak ekarri behar dizula”) eta antzeko esakerak saihestuko dira). Era berean, bi gurasoentzat diren mezuak ez dira helaraziko funtzioa bati bakarrik bategokio bezala. Adibidez, haurrari ez zaio honako hau esan behar: “esan iezaiozu zure amari datorren astelehenean guraso-bilera dugula”.
- Familia: dibortzio-egoera baten aurrean familia berri bat dagoela hartu behar da kontuan. “Familiaren desegituratzea” eta antzeko esakerak saihestu egin behar dira. Horien ordez, “familiaren berregituratzea” edo “familia berria” esan daiteke. Kontuan izan behar da haurrak ez duela harremanik galtzen. Izatekotan, harreman berriak egiten ditu, pertsona, harreman eta atxikimendu-transferentzia berriak agertzen baitira.

- 7. Ikastetxearen kurrikulumean haur guztien garapena eta integrazioa bultzatzera bideratutako zeharkako programak txertatzea.** Programa horietan, aniztasuna, familia berriak (familia-egitura eta familia-harreman berriak), leialtasuna, fidelitasuna, erantzukizuna, emozio-hezkuntza eta abar landu ahal izango dira.

Ildo horretan, ikasgelako jarduerak gidatuak daude gai horiek lantzeko. Adibidez, aniztasunaren gaia lantzeko, familia-istorioak landuko dituzten jarduerak batzuk eta gai hori kontuan hartuko duten materialak (ipuinak, liburuak, koadernoak, filmak eta abar) erabil daitezke.

Halaber, jarduera horien bidez, guraso dibortziatuak dituzten haurrek bakarrik ez daudela eta errealitate hori bizi duten bakarrak ez direla ikus dezakete. Bestalde, jarduera horien bidez ikasle guztiek dibortzioa ulertu eta normalizatu ahal izango dute, eta egungo familia-aniztasunaren inguruan sentsibilizatu ahal izango dira.

2. Eranskinean, klasean ikasleen garapena bultzatzea dezaketen balio eta printzipio batzuk lantzeko hainbat jarduera daude jasota.

8. Psikologoari, orientatzaileari edo erreferentziako figurari ikaslea ondoez psikologikoko egoeran dagoela jakinaraztea.

Antsietatearen eta tristuraren seinaleek iraugo balute, irakasleek laguntza osagarria eman beharko lukete (ikastetxean, funtsean). Zenbait kasutan, eta ikastetxeko orientazio-taldearekin balioetsi ondoren, garrantzitsua da gurasoei haurra psikologo batengana eraman beharko litzatekeela iradokitzea

9. Bi gurasoen parte-hartzea bultzatzea

(ikus familiaren eta eskolaren arteko lankidetzari buruzko atala).

Ondoren, eta adibide modura, haurrek dibortzioaren ondoren izaten dituzten sentimendurik ohikoenetako batzuk eta hezkuntza arloko profesionalak sentimendu horiek lantzeko modua biltzen dituzten koadro batzuk emango aurkeztuko ditugu.

Halaber, hezkuntza arloko profesionalak sentimenduak lantzeko modua oro har planteatzen duen laburpen-koadro bat agertzen da 3. Eranskinean.

TRISTURA ETA ABAILDURA

Nola agertzen den	Okerreko jokabidea	Jokabide eraginkorra
<p>Familia betirako aldatu dela jakitean izaten den erreakzio emozional nagusia da. Gainera, banantzearekin batera, baliteke auzoa, ikastetxea, lagunak, harremanak eta abar aldatu behar izatea. Honako hauen bidez agertzen da :</p> <ul style="list-style-type: none"> • Intzirika hastea, negar egitea, bakarrik egon nahi izatea. • Autoestimu baxua, isolamendu emozionala, gustuko jardueraz gozatzeko zailtasunak. • Jokabide agresiboak eta posizioak. • Gaixotasun fisikoak (buruko mina, urdaileko mina eta abar). • Eskola-zeregin eta esplorazio-jokabideekiko interes txikiagoa. • Eskola-errendimenduaren beherakada esanguratsuak. 	<p>Irakasleentzat, oso gogorra izaten da haur bat triste ikustea, eta haurrak negar egiteari uztea nahi izaten dute, batez ere haurra nola lasaitu eta nola lagundu ez jakiteak eragiten dion larritasunagatik. Irakasle batzuek oso erraz ukatzen edo alde batera uzten dute haurrari gertatzen zaiona, edota garrantzia kentzen diote haurraren egoera emozionalari, onena delakoan. Zenbaitetan, zorientsu izatera bultzatzen dute haurra, baina horrela ez diote laguntzen.</p> <p>Hauxe da okerrera eraginkortasunari begira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentimenduei jaramonik ez egitea edo sentimendueak aitortu nahi ez izatea: <i>“Utzi negar egiteari, esker oneko izateko arrazoi asko dituzu”</i>. • Haurraren egoera emozionalari garrantzia kentzea: <i>“Tira, Jon. Orain gustuko film bat ikusiko dugu, eta ahaztu egingo zaizu, ziur”</i>. • Haurra zorientsu izatera bultzatzen saiatzea. • Arazoa denborarekin desgertuko dela sinestea. Aitzitik, okerrera egin dezake. • Haurrari elkartasuna agertzea, haren egoera emozionalak okerrera egin baitezake: <i>“Ez da harritzekoa horrela sentitzea, ez da bidezkoa gertatu zaizuna”</i>. <p>Emaitza akademiko txarreki dagoenik, irakasle batzuk barkabe-erregiak dira horrelako egoeretan, haurraren tristura areagotu dezaketela uste baitute.</p>	<p>Sentimendueak aitortzea eta horietara zuzenean hurbiltzea. Haurrak bere tristura adierazi behar du, baina gaitzetsita sentitu gabe. Askotan, baina eskaintzen dion eta bere sentimenduei garrantzirik kendu gabe negar egiteko aukera eman diezaiokeen norbait baduela sentitu behar du haurrak.</p> <p><i>“Sentitzen dut hain une zaila jasan behar izatea. Badakit aldaketa asko izango dituzula etxean, espero dut denen egoerak hobera egitea. Eta badakizu: nirekin hitz egin nahi baduzu, nire bulegoan izango nauzu tutoretza-orduetan”</i></p> <p>Haurraren sentimendueak afektua eta enpatia erakutsiz balidatzea.</p> <p><i>“Ulertzen dut triste sentitzea. Zuri gustatuko litzaizuke... uste dut denok sentitzen garela batzuetan horrela. Zer da zuretzat zailena egoera honetan?”</i></p> <p>Zenbaitetan, norbaitek entzutea baino ez du nahi izaten haurrak; ez du aholkurik nahi, entzute aktiboa baino ez.</p> <p>Haurrak dibortzioaren ondoren duen errendimendu akademikoari dagokionez, komeni da ildo horretan sortzen diren arazo akademikoak buruz patxadaz eta laguntza eskainiz eztabaidatzea. Halaber, familiarekin hitz egin dezakegu ordutegiei eta eskolako lanak etxean antolatzeke moduari buruz.</p>

ERRUDUNTASUNA

Nola agertzen den	Okerreko jokabidea	Jokabide eraginkorra
<p>Haurrak gurasoen dibortzioa edo banantzea eragin duela (hau da, egoera hori gertatzeko gauza “txarren” bat egin duela) pentsatu ohi du sarritan. Batez ere, 10-12 urteko adinera arte gertatzen da hori. Zergatik gertatzen da?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egozentrikoak dira, eta munduaren ardatza direla uste dute; gertatzen dena “beraiei eta beraiengatik” gertatzen da: “Hobeto portatu izan banintz”. • Ez dute garbi ulertzen kausa-efektu erlazioa. • Pixkanaka, pentsamendu egozentrikoa desagertu eta sentimendu errealistago bat agertzen da. Hala ere, pentsamendu magiko eta egozentrikoak helduarora arte iraun dezake: “Gaizki portatu izana ari naiz ordaintzen”. Beren haserreak eta asmo txarrak (“Munduko amarik txarrena zara, beste aita bat izatea gustatuko litzaidake”) egoeraren arrazoia direla interpretatzen dute. Batzuetan, suntsitzeko duten ahalmenaren beldur dira. 	<p>Zenbaitetan, irakasle batzuek, beren asmorik onenarekin, honako hau esaten dute: “Zure gurasoak zure onerako banandu dira, ez zizuten minik eman nahi”.</p> <p>Esaldi horrek seme-alabaren gain kokatzen du erantzukizuna. Alabaina, erantzukizuna gurasoek hartu behar dute beren gain. Pertsona batzuek, ordea, semearen edo alabaren jokabidean kokatzen dute dibortzioaren arrazoia.</p>	<p>Honako hau da egokiena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • THaustura pertsona helduen kontua dela helaraztea. Ez da behin eta berriz errepikatu behar “errua ez da zurea”, zailantza gehiago eragin baititzake horrek. Ekintzekin frogatu behar da hori: <ul style="list-style-type: none"> • Haurrari aita nahiz ama izaten jarraitzen duela eta biek harremanetan jarrai dezakeela gogorarazi. • Amarekin nahiz aitarekin bildu, eta haurrari bien kezka, afektua eta arreta helarazi. • Gurasoak ez kritikatu. • Haurrarekin haren ustez banantzeko egoera eragin duten gauzak berrikusi, eta gauza horiek bere errua ez direla izan ziurtatu.



HASERREA

Nola agertzen den	Okerreko jokabidea	Jokabide eraginkorra
<p>Haserrea eta mina sentitzen dute gurasoek “huts egin diete-lako”. Haur batzuek gurasoen ar-teko eztabaidak, aurpegi txarrak eta kritikak ikusten dituzte, eta sufritu egiten dute horregatik. Batzuetan, gainera, ikaskideen marginazioa jasaten dute.</p> <p>Egoerak, tristurak eta errudun-tasunak gainezka egiten diete, eta ez dakite horiek adierazten, edota era heldugabeen adieraz-ten dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irain, iseka eta borroken bitartez (ikaskideekin). • Gurasoei eta irakasleei desobeditzea eta haiekin eztabaidatzea, 	<p>Irakasle batzuek jokabidea-ren aurrean erantzuten dute, sentimendua kontuan hartu gabe, eta haurra zigortu egiten dute, errieta egiten diote edota umiliatu egiten dute. Horren on-dorioz, haurren amorrua eta ondoeza areagotu egiten dira.</p> <p>Beste irakasle batzuek amore ematen dute, eta ez dute egoera aintzakotzat hartzen (“<i>Badu nahikoa bere egoerarekin</i>”).</p> <p>Beste batzuek, asmorik onenare-kin, denbora ematen diote haur-rari “<i>arazoa berez konponduko delakoan</i>”, eta ez dute kontuan hartzen haurren jokabide agresiboa. Horrela, haurrak inork ez duela aintzat hartzen sentituko du.</p>	<p>Honako hau da egokiena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jokabide agresiboak ez onartzea: elkarrizketa lasaia eta gizabidezkoa bultzatzea: “<i>Entzuten ari natzazu, baina lasai hitz egin behar duzu ha-serre egon arren</i>”. Emozionalki kontrolatzeko ahaleginean, arazoak konpontzeko era positibo eta eraginkor bat eskaintzen zaio. • Haurraren guzuzenean jotzea, haren haserrea aitortzea eta esan behar duena entzuteko prest gaudela adieraztea: “<i>Ikusten dudanez, gaur ez da zure eguna. Uste dut garrantzitsua dela hitz egitea. Nola sentitzen zaren jakin nahi nuke</i>”. • Gatazkak konpontzeko jarraibideak ematea: “<i>Zerk gogaitzen zaitu hainbeste? Zer aukera dauzkagu...? Hobeto sentituko al zara ...eginez gero?</i>”.

BELDURRA ETA ANTSIETATEA

Nola agertzen den	Okerreko jokabidea	Jokabide eraginkorra
<p>Gurasoak dibortziatzen direnean, hurrek beldurra izaten dute beren egoeragatik: "ama/aita ikusten jarraituko al dut? Orain arteko gauzak egiten jarraituko al dut? Non biziko naiz? Aitona-amonak ikusten jarraitu ahal izango al dut?"</p> <p>Helduen ikuspegitik irrazionalak, baina eurentzat oso errealak diren beldurrak izaten dituzte hurrek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bi gurasoek bera bakarrik uzteko beldurra. • Aitaren edo amaren maitasuna galtzeko beldurra. <p>Horren ondorioz, honako hauek ager daitezke: negar sarria, gurasoenganako zein ikastetxeko helduenganako gehiegizko atxikimendu-jokabideak, kezka eta jokabide erregresiboak.</p>	<p>Irakasle batzuek autonomia-rik eta heldutasunik ezaren adierazletzat hartzen dituzte haurren atxikimendu-jokabideak, jokabide erregresiboak eta negarrak, eta zigortu egiten dituzte jokabide horiengatik.</p> <p>Haurrak ez du inoiz kritikatu eta barregarri sentitu behar; osterantzean, ez du gugan konfiantzarik izango eta bakarrik sentituko da berriz.</p>	<p>Garrantzitsua da irakasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adierazteko aukera ematea, lasaitzea eta inork bakarrik utziko ez duela, inoren maitasuna galduko ez duela eta aitaren eta amaren arteko harremana aurrerantzean desberdina izango dela ulertzen laguntzea. • Gurasoekin hitz egitea klasean ikusitako jokabideen berri emateko. • Gurasoen eta aitona-amonen garrantzia azpimarratzea eta, horretarako, klasean honako hauek bultzatuko dituzten jarduerak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Kide izatearen zentzua: historia pertsonala eta senide talde handia duela adieraztea. • Eskola barruan babesa jasotzen duela sentiaraztea.

4

ZER IRITZI DUTE HEZKUNTZAREN MUNDUKO PROFESIONALEK? ETA GURASOEK?

HEZKUNTZAREN MUNDUKO PROFESIONALEN IRITZIAK

Hezkuntza-sistemaren etapa guztietan agertzen diren errealitate guztietara hurbiltzeko asmoz, hiru talde fokal egin ziren ezaugarri desberdinak zituzten hiru ikastetxetan: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arteko prestakuntza ematen duen itunpeko ikastetxe batean, eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publiko batean. Esplorazio-azterlan honen helburua lagin adierazgarri bat lortzea ez zenez gero, hiri bereko hiru ikastetxe hautatu eta gonbidatu ziren.

Talde fokalak ikastetxeetako instalazioetan bertan garatu ziren, ikastetxe horiekin harremanetan jarri eta gure azterlanaren helburuaren berri eman ondoren. Irakasle, aholkulari eta orientatzaileak kontuan hartuta, guztira 17 profesionalak hartu zuten parte (3 gizonak eta 14 emakumeak).



Ikastetxe horiek dibortzioari lotutako gaiak dagokienez agertzen zuten errealitatea eta egoera horretan dauden haur eta familiarekin lan egiteko modua beren profesionalekin ikertzea zen talde fokalen helburua. Horretarako, elkarriketa-gidoi

bat erabili zen. Bi galdera multzo nagusiri erantzun behar zitzairen: (a) lehenak ikasleak zituen ardatz, batetik, eta dibortzio baten ondoren haurrek izan ditzaketen aldaketak kudeatu eta lantzeko profesionalak egiten zutena, bestetik, eta (b) bigarren multzoan, familien eta ikastetxearen arteko harremanak eta komunikazioa islatu nahi izan ziren.

Lehenik eta behin, gurasoak banantze- edo dibortzio-prozesu batean murgilduta dituzten haurrengan hautemandako adierazleez hitz egin zuten parte-hartzaileak. Parte-hartzaile guztiak adierazi zuten haur horiek askotan tristura, depresioa eta agresibitatea agertzen dutela eta beren errendimendu akademikoak okerrera egiten duela. Halaber, beste alarma-zantzu batzuk ere aipatu zituzten. Adibidez, haur edo nerabe horiek oso isil bihurtzen direla eta/edo lehen ez zituzten portaerak agertzen dituztela adierazi zuten. Profesionalak gaineratu zuten, sintoma horiek haur txikiengan zein nerabeengan agertzen badira ere, azken horien kasuan zailagoa da ikasleengana hurbiltzea, isilagoak eta selektiboagoak baitira helduekin. Era berean, zailagoa da sintoma horiek dibortzioarekin lotzea, nerabeen bilakaeraren berrezko sintomak direla pentsa baitezakegu.

Profesionalak adierazi zuten, halaber, adierazle horiek dibortzioa gertatzen den unean bereziki hautemangarriak badira ere, denbora igarotakoan ere ager daitezkeela, batez ere gurasoen arteko harremanak zailak badira.

Ikastetxeek egoera horien aurrean ikasleekin hartutako jarrerari dagokionez, antzeko samarra dela esan daiteke. Tutore, aholkulari eta/edo orientatzaileen lana funtsezkoa da parte hartu duten ikastetxe guztietan. Profesional batzuek (Lehen Hezkuntzakoek nagusiki) adierazi zigutenez, aholkularitza-sailak haurrekin lan egiten du haur horiei lasaitzeko aukera eta laguntza eskaintzeko. Gainera, haurrengan horrelako adierazleren

bat detektatzen denean, ikastetxea familiarekin harremanetan jartzen da, gai horren inguruan lan egiteko. Ildo horretan, haurrei familia-egoera berriarako trantsizioa ahalbidetuko dieten oinarrizko jarraibide batzuk ematen saiatzen da ikastetxea.

Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako profesionalek adierazi zutenek, ikasgelan ez dute egiten dibortzioa lantzeko jarduerarik, lehentasun handiagoa ematen baitiete beste gai batzuei (nerabezaroari eta mugen ezarpenari, adibidez). Profesional batek aipatu zuenez, “ez da arazoa sortu behar horren inguruan lan eginez”. Beste batek adierazi zuen gaia tutoretza-saioreen batean agertu zenean baino ez zela landu ikastetxean.

Lehen Hezkuntzan garatutako lanei dagokienez, ikastetxeetan zenbait gai (familia-aniztasuna, familia-ereduak eta abar) lantzearen garrantziari buruzko gogoeta egin zen. Halaber, ikastetxe batzuek adierazi zuten adopzioan eta familia berrietan espezializatutako elkarten aholkularitza behar zela taldean problematika horiek lantzeko.

Bigarren galdera multzoari dagokionez, esan dezakegu dibortzio-egoera bat bizi duten familielikiko harreman-ereduak antzekoak direla ikastetxe guztietan. Ikastetxe guztiek biltzen dute haurra-ekin bizi diren pertsonen buruzko informazioa, baina era desberdinean eskatzen dute. Adibidez, haurra etxean norekin bizi den galdetzen da. Guraso batzuei lotsa ematen die ikastetxean beren dibortzio-egoera planteatzeko eta dibortzio-egoera seme-alabekin kudeatzeko moduari buruzko aholkuak eskatzeak.

Ikastetxe guztiek onartzen dute aitak eta amak beren seme edo alabari buruzko hezkuntza-informazioa izateko duten eskubidea, betiere gurasoetako batek salaketarik jarri ez badu edo urruntze-agindu judizialik ez badago. Nolanahi ere, gurasoei informazio hori emateko modua desberdina da ikastetxe bakoitzean. Teknologia berriekin, komunikazio hori arinagoa dela dirudi. Paper-euskarriko jakinarazpenek zailtasun handiagoak ematen dituzte, informazio bikoiztua idatziz eskatu behar baita aldeez aurretik.

Bestalde, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzat bereziki garrantzitsua da adingabearen egonaldi-erregimena zein den jakitea. Alderdi hori garrantzitsua da, batez ere eskola-eguna amaitzean haurrak hartu behar direnean. Ildo horretan, kontuan hartu beharreko jardunbide egoki batzuk adierazi dituzte profesionalek.

Adibidez, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek hitzarmen erregulatzaileari buruzko informazioa eskatu dute. Gainera, ikastetxeetako batean, haurra jasotzeko baimenduta dauden pertsonen zerrenda bat (NAN zenbakia barne) egiten da ikasturtearen hasieran familiarekin.

Bestalde, ikastetxe guztiek –Lehen Hezkuntzakoekin zein Bigarren Hezkuntzakoekin– irakasleekin batera edo bakarka (gatazka-mailaren arabera) biltzeko aukera eskaintzen diete gurasoei.

Azkenik, irakasle batzuek adierazi zutenek, dibortzio-egoeraren aurrean jarrera jakin bat hartzea eta babes handiagoa ematea eskatzen diete irakasleei guraso batzuek (gatazka-mailarik handienekoen, nagusiki). Gaineratu zutenek, zenbaitetan gurasoek, konturatu gabe bada ere, haurra manipulatu egiten dute ezkontide ohiairi kalte egitearren. Nolanahi ere, jarrera jakinik hartu behar ez dutela uste dute profesionalek.

GURASOEN IRITZIAK

Arestian azaldu dugunez, dibortziazatutako gurasoek ikastetxeei egiten dizkieten eskaerak ere aztertu nahi izan ditugu. Ildo horretan, guraso dibortziazatuen irabazi-asmorik gabeko elkarte bateko 4 gizonen eta 2 emakumez osatutako beste talde fokal bat sortu zen. Talde horri egindako galdera gehienen helburua guraso horiek eskolarekiko harremanen eta komunikazioaren inguruan duten ikuspuntua ezagutzeko izan zen.

Talde horrek adierazitako kezka nagusietako bat ikastetxearen informaziorik eza izan da. Zenbait aitak eta amak adierazitakoaren arabera, zailtasunak izan dituzte beren seme edo alabei buruzko txostenak eskatzeko garaian, eta ikastetxeari “mesede bat eskatzearen” sentsazioa izan dute. Halaber, egoera konplexuagoetan jarduteko protokoloak falta direla adierazi dute (hala nola irakasleen deklarazioa epaiketetan, babesalderdi batek hitzarmen erregulatzailearen baldintzak betetzen ez dituenek, edota aiten edo amen parte-hartzea eskolaz kanpoko jardueretan). Halaber, dibortzio baten ondoren “aita/ama ona zarela frogatu” beharra aipatu dute, lehenago inork zalantzan jarri ez zuenean.

Guraso horien ustez, agerikoa da ikastetxeak ahalgin handia egiten ari direla informazioa behar bezala helarazteko, baina komunikazioen formatuak eragina du komunikazio horien eraginkortasunean. Berriz ere, paper-formatua da problematikoena.

Izan ere, askotan, haurrarekin egongo diren eguna den ala ez kontuan hartuta jasotzen dituzte gurasoek komunikazioak edo informazioak.

Horri dagokionez, ama batek adierazi du bereztzat egokia dela ikastetxeek informazioa bi aletan ematea. Zenbait ikastetxek hori egiten dute Eusko Jaurlaritzaren araudia onartu zenetik (ikus 6. eranskina).

Bestalde, gurasoek onartu dute eurek bilatu behar dutela ezkontide ohiarekin sortzen dituzten gatazketarako konponbidea, eta ulertzen dute hezkuntza arloko profesionalak neutralak izatea eta ezein gurasoren alde ez agertzea. Halaber, ikastetxeek balioesteko moduko ideia batzuk iradoki dituzte guraso batzuek. Adibidez, ikastetxearen bitartez familia-bitartekotza lortzeko aukera planteatu zuen aita batek. Bestalde, ama baten ustez, irakasleek indarrean dagoen araudiari buruzko jakintza eta informazio gehiago eduki beharko lukete. Halaber, gurasoentzat interesgarria da familia-egitura berriei lotutako jarduerak planteatzea.

Azkenik, ikastetxeak dibortzioaren gaia lantzeko jarduerak edo tailerrak egitea egokia iruditzen zitzaion ala ez adierazteko eskatu genien parte hartu zuten gurasoei. Gehienei eskaintza hori familia-egoera berriak normalizatzeko interesgarria iruditu bazitzaion ere, guraso batzuek adierazi zuten nolabaiteko estigmatizazioa eragin lezakeela. Zehazki, ama batek ongi ezagutzen zituen horrelako jarduerak, bere haurraren ikastetxean egin baitzituzten aldi jakin batzuetan.

Ondorio gisa, aitek, amek eta hezkuntzaren munduko profesionalak errealitate konplexu honen inguruan duten ikuspegia azaldu digute. Irakasleak sentikor agertzen dira errealitate honen aurrean (ikastetxeetan egiten ari diren jardunbide egoki batzuk identifikatu dira), baina gurasoek diotenez, eta egindako aurrerapenak kontuan hartuta, oraindik badago zer egin.

Arestian adierazi dugunez, familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren funtsezkoa da haurrak eta gazteak behar bezala egokitzeko eta behar bezala prebenitu eta esku hartzeko.

5

FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA: JARRAIBIDEAK

Lankidetzari hori normalean lan gehiegi izaten duten profesionalentzat "aparteko lana" bada ere, komunikazioa eta baterako lana lagungarriak izan daitezke haurrek eta nerabeek izaten dituzten arazo serioak konpontzeko (hala nola jokabide agresiboa, eskola-porrota eta gaiari buruzko literaturan jasota dagoenaren arabera dibortzio baten ondoren ager daitezkeen beste arrisku-jokabide batzuk).

Leon eta Spengler-ek (2005) lau elementu proposatu zituzten familiaren eta eskolaren arteko harremana horrelako familia-trantsizioak bizi dituzten haurrentzat lagungarria izateko:

1. Lehen elementu garrantzitsua aiten, amen eta eskolaren arteko lankidetzari-esparrua da. Lan-eredu horrek alderdi garrantzitsuak dakartza. Horietako lehena bi norabideko komunikazioa da: garrantzitsua da gurasoek irakasleei haurren bizitzan gertatzen ari diren gauza garrantzitsuak jakinaraztea, eta ikastetxeak gurasoei haurraren jardueren eta eskolako bizitzaren berri ematea. Egokiena komunikazioak eta jakinarazpenak aitari eta amari helaraztea da; notak eta jardueren, azterketa-egunen edo oporraldien inguruko jakinarazpenak aitari eta amari bidaliko litzaizkieke banantzearen edo dibortzioaren kasuan. Horretarako, ezinbestekoa da amaren eta aitaren helbideak eta telefono-zenbakiak izatea. Ikastetxeak ikasturtearen hasieran eska ditzake datu horiek (adibidez, 4. Eranskinetako antzeko fitxa-eredu bat erabil daiteke).

Ikastetxea ez da hitzarmenaren kopia batekin geratuko; berehala itzuli beharko zaio aitari/amari, egonaldi-erregimena egiaztatatu ondoren. Ikastetxeak era egokian jaso beharko du informazio hori (adibidez, 5. eranskinetako fitxa erabil daiteke). Jarrabide horien bidez, ikastetxea bi gurasoak inplikatzear arduratzen dela ikusarazten da.

Gainera, adierazi beharra dago familia banantze- edo dibortzio-prozesu batean sartuta badago gurasoak horretan izango dutela burua seguruenik, eta beharbada ez dira konturatuko ikastetxearentzat informazio horrek duen garrantziaz.

Lankidetzari-esparru horren barruan, irakasleek kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat familiaren indarrak aintzat hartzea eta aitortzea da: egoera berrietara egokitzeko malgutasuna, negoziatzeko eta arazoak konpontzeko trebetasunak eta, garrantzitsuenetako bat, haurrek badituztela, dibortzioa gorabehera, maite eta zaintzen dituzten gurasoak.

2. Bigarren elementua profesionalak familien aurrean hartzen dituzten jarrerak eta gurasoek eskolaren eta hezkuntza-sistemaren aurrean hartzen dituztenek osatzen dute. Profesionalak aurretik banantze- eta dibortzio-prozesuei lotutako esperientziak izan badituzte (arlotan pertsonalean zein lan-arloan), baliteke horren ondorioz hartutako jarrera batzuk erabakigarriak izatea beren jardunean (hala nola ezer egiterik ez dagoela, familia guztiak berdinak direla eta abar pentsatzea). Profesionalak aurreiritziak uxatzen eta antzeko egoera batean (ez, ordea, egoera berdinean) dagoen familia eta haur bakoitzarentzako igurikapen errealistak garatzen jakin behar dute. Era berean, aurretik gurasoek eskola- eta hezkuntza arloan izan dituzten esperientzien ondorioz hartutako jarrerak eragina izan dezakete familiaren eta eskolaren arteko lankidetzan (eskola inoiz ezertan inplikatzeko ez dela eta lagunduko ez duela pentsatzea, adibidez).
3. Hirugarren elementua familia mota orotarako giro abegitsua sortzea da. Ildo horretan, sentikortasuna agertu behar da familia-aniztasunaren aurrean, eta haurraren bizitzan garrantzia duten pertsona guztiak hartu behar dira kontuan

(haurrarekin bizi den eta bizi ez den aita/ama eta abar). Oro har haurrak aitarekin edo amarekin bizi direnez gero, jarraibide horiek lagungarriak izango dira haurrarekin bizi ez den gurasoak bere seme edo alabaren eskola-esperientziaren berri ez duela senti ez dezan.

4. Azken elementua dibortzio-prozesu bat bizi izan duten familia eta hurrei zuzendutako babes-ekintzak egitea da. Missouriiko Unibertsitateak hainbat adibide eskaini ditu (Leon eta Spengler, 2005). Irakasleei ez die denbora asko kentzen, eta ekintzek eragin handia izan dezakete familia horietan. Hona hemen adibide batzuk:

- Familiei informazioa ematea gurasoen eta seme-alaben arteko harreman positiboak sustatzeko (liburuak edo informazio-liburuxkak).
- Gurasoak seme edo alabaren eskola-aurre-rapenak monitorizatzea animatzea, idatzizko hezkuntza-jarraibideen eta ikastetxeak ematen dituen erregistro-fitxen bidez.
- Familia seme-alaben hezkuntza-zereginetan inplikatzeko eta hezkuntza-proiektu eta hezkuntza-jarduera batzuetan parte hartzea proposatzea (kirol-jardueretan eta kultura-jardueretan, adibidez).
- Familia-aniztasuna eta hurrek hausnartu beharreko balio eta printzipioak (leialtasuna, konpromisoa, maitasuna, betebeharrak eta abar) lantzeko aukera emango duten zeharkako jarduerak egitea ikasgelan (ikus 2. Eranskina).

Ikastetxeak protokolo simple bat edo jarduteko jarraibide jakin batzuk erabiltzeak, Leon eta Spengler-ek (2005) proposatu bezala, erraztu egin dezake lankidetzaren hori. Gainera, Autonomia Erkidegoan badago familiaren eta ikastetxearen arteko harreman eta lankidetzaren horren inguruko jarraibideak ezarri dituen legeria. Adibidez, ikastetxeek elkarrekin bizi ez diren gurasoak dituzten haurrekin lan egiten dutenean kontuan hartu beharreko hainbat instrukzio eta jarraibide argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (ikus 6. eranskina).

Instrukzio horiek, halaber, hitzarmenak guraso-ahalaren hezkuntza-arloko erabileraren inguruan biltzen dituen neurrien garrantzia jasotzen dute. Arestian adierazi dugunez, garrantzitsua da ikastetxeak xedapen horren berri izatea, baina,

Eusko Jaurlaritzak proposatutako instrukzioei jarraiki, “dokumentu hori berehala itzuliko zaio eskatzaileari, eta espedientearen jasoko den gauza bakarra hezkuntza-erabakien inguruan xedatutakoa adieraziko duen ikastetxeko idazkariaren ohar bat izango da”.

Jarraibide horiek beste Autonomia Erkidego batzuetan ere jaso dira. Erreferentzietan buruzko atalean, beste Autonomia Erkidego batzuetako dokumentuetarako esteka batzuk agertzen dira.

Amaitzeko, familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren hori antolatzen eta sistematizatzen lagun diezaguketen jardueren zerrenda bat proposatuko dugu.

.

Adierazi zure ikastetxean honako hau egiten den:	BAI / EZ
Familiaren egoerari eta egiturari buruzko informazioa biltzen da ikasturtearen hasieran.	
Gurasoak elkarrekin bizi ez badira, bi gurasoen helbidea, telefonoa eta e-maila edukitzen da.	
Hezkuntza-arloko hitzarmen erregulatzaileren xedapenak jasotzen dira idatziz idazkaritzan.	
Egonaldi-erregimenari buruzko hitzarmen erregulatzaileren xedapenak jasotzen dira idatziz idazkaritzan (egokia Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan).	
Kirol- edo arte-jarduera baten kasuan, bi gurasoei jakinarazten zaie, nahiago duten bidea erabiliz.	
Notak eta eskola-gorabeherak bi gurasoei jakinarazten zaizkie, nahiago duten bidea erabiliz.	

6

GURASOEKIN LANTZEKO TREBETASUN BALIAGARRI BATZUK

Atal honetan, gurasoen artean seme-alabentzat garrantzitsuak diren erabakietan desadostasunak agertzen direnean hezkuntza-arloko profesionalak lagun diezaieketen bitartekotza- eta psikologia-eremuko hainbat taktika eta trebetasun proposatzen dira. Irakasleek, aholkulariek, orientatzaileek eta gurasoek eman dizkiguten datuak kontuan hartuta, garrantzi handiko kontua da. Izan ere, ezkontide ohien arteko gatazka batzuek hezkuntza-eremuan arloan eragina dutela adierazi dute.



Hezkuntza-arloko profesionalak hainbat tresna edo trebetasun dituzte eskura dibortzioa bizitzen ari diren edo bizi izan duten haurren gurasoentzat lagungarriak izan daitezkeenak. Kontua ez da irakasleek edo orientatzaileek gurasoekin bitartekotza-lanak egitea, Robledo Bucio-k (2010) adierazi duen bezala bitartekotza-jarduera informal bat egitea baizik, hau da, profesionalak elkarren aurka dauden bi pertsonak beren desadostasunak utzi eta bientzako erabaki on bat hartzen lagunduko duten familia-bitartekotzako teknika jakin batzuk ezagutzea eta erabiltzea.

Hezkuntza-arloko profesionalak bitartekotza informal horretarako erabil ditzaketen teknika orokor batzuk azpimarratuko ditugu ondoren. Teknika independenteak dira, ez dute urrats jakin batzuk egiterik eskatzen, eta batzuek aplikatzeko beharrezkoa izan daiteke prestakuntza espezifikoak. Dena dela, gure ustez baliagarriak izan daitezke profesional horientzat, nagusiki hezkuntza-arloko gai batean ados ez dauden aita baten eta ama baten aurrean dauden kasuan.

Teknikak honako hauek dira:

1. Komunikazioa eta elkarrizketa errazteko teknika izarra entzute aktiboa izango da seguruenik. Poyatos García (2003) adierazi duenez, entzute aktibo edo enpatikoak besteari ulertzeko ahalegina egitea dakar, solaskidearen emozioak, edukiak eta gorputzarekin transmititzen diren adierazpenak behar ditu aldi berean. Entzute aktiboaren bidez transmititzen dena bestearen hipotesiak errespetatzeko eta onartzeko jarrera da; era horretan, harremana legitimatu egiten da.
2. Poyatos García (2003) jarraiki, erabili beharreko beste oinarriko tresna bat galderak dira, komunikazioa erraztu egiten baitute. Galderen bidez, desadostasunaren edukiari eta testuinguruari buruzko informazioa lor daiteke, desadostasunaren elementu jakin bati ekin dakioko, eta adostasun-puntuak sumatu daitezke. Galderak honelakoak izan daitezke:
 - i. Itxiak: bai/ez moduko erantzunak onartzen dituzte. Aldez aurreko ideia bat berresteko balio dute.
 - ii. Irekiak: egoera bat ikertzeko balio dute, eta gai bati buruz pentsatzen edo sentitzen duena ongi azaltzeko aukera ematen diote pertsonari.
 - iii. Galdera zirkularrak: pertsona bati beste batzuen harremanaz zer pentsatzen duen galdetzen zaio, bestearen lekuan jar dadin.

Esteban Sotok (2012) baliagarriak izan daitezkeen teknika espezifikoago batzuk biltzen ditu. Ondoren azalduko ditugu, kasu espezifiko batetik abiatuta.

1. koadroa. Ikastetxe bateko bitartekotza informala-
ren fikziozko kasu bat.

Lola 12 urteko neska da. Gurasoak duela 6 urte dibortziatu ziren, Lolak 6 urte zituenean. Gurasoak dibortziatu zirenez geroztik, Lola amarekin bizi da (Anarekin). Haurrarekin bizi ez den ezkontidearen harreman-, egonaldi- eta komunikazio-erregimenean estipulatutakoaren arabera, Lola astelehenean, asteazkenean eta txandakako asteburuetan (ostiralean Lola eskolatik irteten denetik astelehenean eskolan sartzen den arte) biziko da aitarekin. Bi gurasoak udalerrri berean bizi dira, baina ez oso hurbil.

Anak gatazka bat du bikotekide ohiarekin. Atsekabetuta dago Lola aitarekin dagoenean etxeko lanak egiten ez dituelako eta Anak igandeetan Lolarekin ikasten egon behar duelako azken orduan. Lola etxeko lanak egin gabe ere joan izan da eskolara astelehenen batean.

Tutorea kezkatuta dago neskaarekin; Lola etxeko lanak egin gabe joan da eskolara zenbaitean, eta bi kontrol-azterketa suspenditu ditu. Egoera horren aurrean, Jonerekin hitz egitea erabaki du, hau da, ikastetxeko orientatzailearekin. Jonek, Lolaren gurasoen dibortzioa kontuan hartuta, deia egin die Anari eta Manolori, gertatzen ari denaz hitz egiteko.

1. Normalizazioa

Gurasoetako batek egoera nahasiegia dela uste duenean erabil daiteke teknika hau. Arazoa berriaz formulatzean eta azalpen erreala eta objektibo batekin aurkeztean datza. Era horretan, egoera ez da neurritz kanpoko izango, eta, beraz, konponbidea errazagoa eta hurbilagoa dirudi.

2. koadroa. Normalizazioaren adibidea.

Ana: Azkenaldi honetan, askoz eztabaida gehiago ditugu, eta beti arrazoi beragatik. Lola Manolorekin dagoen asteburuetan, ez dituzkolako zereginak egiten, eta etxeko lanak egin gabe joaten da. Egia esan, egoera honek gainezka egin dit, ezin dut gehiago jasan. Igandea iristen denean, beldur naiz etxeko lanak egin gabe etorriko ote den, eta badakit azkenean eztabaida izango dugula astelehenean.

Jone: Normala da zuentzat garrantzitsuak diren gaietan (alabaren heziketan, adibidez) tentsio-maila handiak agertzea. Hemen egingo duguna zera da, desadostasun hori egoera lasai eta atsegin batean tratatzen saiatu, kezkatzen zaituen guztia aztertzeke eta akordio bat lortzeke.

2. Etorkizunera bideratzea

Teknika honek iraganeko arazo eta zailtasunei lotuta geratu diren gurasoak mobilizatzeko balio du. Adierazitako ekintzari buruzko etorkizuneko konnotazioak dituen galdera edo iruzkin baten bitartez egiten da.

3. koadroa. Etorkizunera bideratzearen adibidea.

Jone: Eta zu, Manolo? Zure ustez, zer egin dezakezu egoera hau konpontzeke?

Manolo: Etxeko lanetan gehiago inplikatu.

Ana: Zu? Inoiz ez duzu ezer egin eta; ni arduratu izan naiz beti horretaz! Ez zenuke ezer egiten jakingo; nola hasiko zara?

Jone: Ana, gustatuko al litzaizuke Manolo Lolaren eskola-zereginetan gehiago inplikatzeko? Zer beharko litzateke horretarako?

3. Elkarrekikotasuna

Ez da ohikoa desadostasun-egoera batean dagoen pertsona batek arazoaren partaide dela onartzea. Teknika honen bidez, hezkuntza-erloko profesionalak formula berri bat du arazo definitzeko eta, era horretan, besteari errua leporatzean oinarritutako jarrera desagerrarazteko.

4. koadroa. Elkarrekikotasunaren adibidea.

Manolo: Ana beti esaten ari zait zer egin behar dudan! Ez duzu entzuten, inposatu baino ez duzu egiten, ezin da zurekin hitz egin...

Ana: Bai, eta bitartean, zu zoragarria zara, eta ni, berriz, etxeko lanak agintzen dituen sarjentu ankerra.

Jone: Biok ikuspuntu desberdinak dituzuela dirudi; zer iruditzen zaizue bakoitzak elkarriketa egokia izateko zer behar duen azaltzen badu?

4. Sintesia

Ordura arte lortutako akordio-puntuen laburpen objektibo bat egiten da. Gurasoetako batek esan duena argitzeko edota ordura arte esan dena biltzeko erabil daiteke. Gainera, elkarrizketa zentratzen eta profesionalaren rol ez-bideratzailea argitzen laguntzen du (erabakiak hartzeko prozesuaren eragileak aita eta ama dira).

5. koadroa. Sintesiaren adibidea.

Jone: Ongi, utz iezadazue orain arte esandakoa laburbiltzen. Anak helarazi digu bere ustez Lolak asteburu guztietan egin beharko lituzkeela etxeko lanak, batarekin zein bestearekin egon, eta Manolok zail ikusten du Lola berarekin dagoen asteburuetan alabarekin etxeko lanak egitea. Gainera, Manolori gustatuko litzaioke azterketen datei buruzko informazio gehiago izatea. Uste dut hori dela kezkatzen zaituztena; ongi ulertu eta laburtu al dut?

5. Bestea aintzatestea

Zenbaitetan, irakasleek eta hezkuntza-esparruko beste profesional batzuek aurrean duten gatazkaren inplikazio emozionala oso handia izaten da, eta gurasoetako batek bere burua eta bere premiak baino ez ditu kontuan hartzen. Profesionalak teknika hau erabiltzen duenean, bestearen aipamena egiten du eta egoera norberarentzat ez ezik bestearentzat ere oso zaila dela onarrazten du.

6. koadroa. Bestea aintzatestearen adibidea.

Jone: Uste dut aurrera egiten ari garela, eta ahalegin handia egiten ari zaretela ikusten dut. Gainera, gauza bat azpimarratu duzue biok: kezkatuta zaudete Lolaren ongi-zatearekin eta, zehazki, haren heziketarekin. Hitz egin duzuen guztiaren ondoren, zuei bioi bestearengandik edo egoeratik lehen ulertzen ez zenuten zerbait ulertzen duzuen galdetzeko garaia heldu dela uste dut.

6. Berformulazioa

Teknika hau oso erraza da aplikatzen, baina al-daketa handiak eragin ditzake desadostasuna ulertzeko moduan. Mezuak hobeto ulertzeko eta asimilatzeke erabiltzen da, eta gurasoetako batek esan duenari formulazio berri bat (ez-mingarria, neutroa eta elkarrizketa erraz dezakeena) ematean datza.

7. koadroa. Berformulazioaren adibidea.

Ana: Inork ez du esan zuk hori egin ezin duzunik, ez didazu ulertzen. Esaten ari naizena da haurra ezin dela joan eskolara etxeko lanak egin gabe! Eztabaida askoren ondoren, ez du ulertzen, eta azken aldi honetan, gainera, haurraren notek okerrera egin dute. Bi azterketa suspenditu ditu, eta ez dut berriz gertatzerik nahi. Hori da dena; orain arte, Manoloren arduragabekeriaren zama nire gain hartu arren, isilik egon naiz, baina ezin dut onartu haurra eskolan atzeratzea aita alfer hutsa izateagatik eta bere erantzukizunak bere gain hartu nahi ez izateagatik.

Jone: Manolo, Anak dio ez dagoela ados Lolarekin zauden asteburuetan haurraren eskola-zereginak kudeatzeko duzun modurekin. Kontatuko al diguzu orain zer ikuspegi duzun egoeraren inguruan?

7. Konnotazio positiboa

Teknika honen bidez, esanahi positiboa eman nahi zaio iruzkin negatibo bati. Era horretan, mezua era positiboan "berrinterpretatzen" da, eta komunikazio egokia eta erabakiak hartzeko aukera zaputz dezaketen iruzkin desegokien ondoriozko jarrera eta sentimendu negatibo jakin batzuk murriztu egiten dira. Teknika hau aplikatzeko, alde positiboa aurkitu behar da ezkontide ohietako batek egindako iruzkinean.

8. koadroa. Konnotazio positiboaren adibidea.

Ana: Bada bai, begira; zer gertatzen da, Manolo? Zergatik zara hain zaila gai honekin? Zergatik ez duzu laguntzen? Alferrrik da, Jone aurrean dagoela ere berdin da, esandako arrazoiak ez ditu aintzat hartzen, berriz ere eztabaidan, oso urduri jartzen ari naiz...

Jone: Egia da, Ana, kezkatzen zaituen gaiak berriz hitz egiteak urduri jar zaitzakeela, baina ingurune lasai honetan eta nire aurrean hitz egiten baduzue, agian errazagoa izango zaizue zuen egoeraren inguruan akordio batera iristea eta egoera horri lotutako sentimendu negatiboak uxatzea.

Amaitzeko, teknika horien “magia” azpimarratu nahi genuke. Esteban Sotok (2012) dioenez, esperientziaren araberakoa da magia hori. Tresna horiek guztiak protagonisten aurretiko historiak eraldatzea dute helburu. Baina, egile horri jarraiki, erabiltzen trebatu beharra dago lehenik, eta askotan erabili behar da gero. Historiaren ikuskeran, desadostasunaren arrazoian, bestearekiko ikuspegiaren eta abar nahi den aldaketa lortzeko, teknika eta tresna horiek behin eta berriz erabili behar dira bitartekotza-saio batean edo, gure kasuan, ados ez dauden gurasoekin egindako bilera batean.

ERREFERENTZIAK

Erreferentziak

Dibortzioa

- Clerget, S. (2006). *Separémonos pero protejamos a nuestros hijos*. Barcelona: De Vecchi.
- Estatistikako Institutu Nazionala (2013). Estadística de nulidades, separaciones y divorcios. Eskuragarri honako honetan: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&file=pcaxis&path=%2Ft18%2Fp420%2Fp01%2F%2Fa2012>.
- Esteban Soto, Y. (2012). Las armas del mediador para lograr el acuerdo: las microtécnicas de la mediación. Honako honetan: H. Soletto, E. Carretero Morales eta C. Ruiz López. *Mediación y resolución de conflictos: técnicas y ámbitos* (2. ed.) (239-260. or.). Madril: Tecnos argitaletxea.
- Familia Politikarako Institutua (2010). El divorcio en la Unión Europea. Buletin monografikoa, on line (8. zk.). <http://www.ipfe.org/España/Documentos/IPF>.
- Familia Politikarako Institutua (2013). La ruptura familiar en España 2012. IPFaren txostenak. Eskuragarri honako honetan: <http://www.ipfe.org/España/Documentos/IPF>.
- Leon, K. eta Spengler, L. (2005). *Helping children adjust to divorce: A guide for teachers*. Eskuragarri honako honetan: <http://extension.missouri.edu/publications/DisplayPub.aspx?P=GH6611>.
- Martínez-Pampliega, A., Iriarte, L. eta Sanz, M. (2014). Egokitzen. Programa de intervención post-divorcio. Deustuko Unibertsitatea.
- Pedro-Carroll, J. (2010). *Putting children first. Proven parenting strategies for helping children thrive through divorce*. New York, NY US: Avery/Penguin Group USA.
- Poyatos García, A. (2003). *Mediación familiar y social en diferentes contextos*. Valentzia: Nau Libres.
- Robledo Bucio, M.M. (2010). Profesores y mediación familiar como alternativa para una mejor adaptación de los niños/as ante el divorcio. *Revista de la intervención Psicosocioeducativa en la desadaptación social*, 3, 31-40.
- Wallerstein, J. S. (1983). Children of divorce: Stress and developmental tasks. Honako honetan: N. Garmezy eta M. Rutter (Eds.) *Stress, coping, and development in children*. 265- 303. or. New York: McGraw-Hill.
- Wallerstein, J., Lewis, J. eta Rosenthal, S.P. (2013). Mothers and their children after divorce: Report from a 25-year longitudinal study. *Psychoanalytic Psychology*, 30, 2, 167-187.

Irakaslegoarentzako interesgarria den araudia eta legeria

Zerrenda honek arautegi garrantzitsuei estekak eta hezkuntza arloko araudi autonomikoen adibide batzuk jasotzen ditu.

Kode Zibila: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1889-4763>.

15/2005 Legea, uztailaren 8koa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea banantze eta dibortzioaren arloan aldatzen dituena: <http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/09/pdfs/A24458-24461.pdf>.

Deuseztasun, banantze eta dibortzioaren kasuan guraso-erantzukidetasuna erebiltzeko moduari buruzko Aurreproiektua: <http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/es/1215197775106/Medios/1288781716675/Detalle.html>.

Jarraibideak, EAeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ikastetxeen zuzendaritzarenak, guraso banatu edo dibortzietuek edo elkarbizitza eten duten izateko bikoteek informazioa eskatzeko eta ikastetxea aldatzeko eskatzen duten kasuetarako: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif3/es_2078/adjuntos/instrucciones_divorcio_c.pdf.

1997ko urtarrilaren 25eko jarraibideak, guraso banatu edo dibortzietuei seme-alaben ebaluazioaren emaitzen gaineko informazioaren inguruan, Asturietaako Printzerriko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Kontseilaritza.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan banantze-, dibortzio- edo desadostasun-egoeran dauden guraso edo tutoreekin jarduteko instrukzioak (Nafarroako Gobernua – Hezkuntza Saila): <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/54F66A37-5966-44E0-BC52-7AEA1F3E0134/272285/100114ed71instruccionacentros.pdf>.

R. 2009/10/22, Gaztela eta Leongo Komunitatekounibertsitateaz kanpoko eta publikoki babestutako ikastetxeen jarduera ezartzen duela, familiek bere seme-alaben ikasketa-prozesuaren eta integrazio sozioedukatiboaren gaineko informazioa jasotzeko eta jarduera akademikoaren inguruko erabakiak hartzeko eskubidearen inguruan, banantzerik edo gurasoen dibortziorik egotekotan,; <http://www.educa.jcyl.es/es/resumenbocyl/r-22-10-2009-establecen-pautas-actuacion-centros-educativos>.

Jarduteko orientabideak guraso-ahal partekatua kasuan (Madrilgo Erkidegoa – Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saila): http://www.madrid.org/dat_este/documentos/Orientaciones_padres_separados_divorciados.pdf.

2013ko urriaren 9ko 5076 AGINDUA uztailaren 8ko 81/2010 Dekretua garatzen duena, Kanariaetako Autonomia-Erkidegoaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako Erregelamendu Organikoa onartzen duena, bere antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez (51 artikulua - Informazioa gurasoak banandutakorik edo dibortzietuek egotekotan). Kanarietako Gobernua – Hezkuntza Kontseilaritza: <http://www.gobiernodecanarias.org/boc/2013/200/001.html>.

Zentro eta Irakaslegoaren zuzendari nagusiaren 2014ko martxoaren 28ko ERABAKIA, non gurasoak banantze, dibortzio edo pareko egoera baten ondorioz elkarrekin bizi ez direnean ikasleen eskolatzeari dagozkien jarraibideak ezartzen diren. Comunitat Valenciana-ren Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Kontseilaritza: http://www.docv.gva.es/datos/2014/04/03/pdf/2014_2838.pdf.

Bananduta edo dibortziatuta dauden gurasoen kasuan ikastetxeetan jarduteko protokoloa (Andaluziako Junta – Hezkuntza Saila: <http://www.juntadeandalucia.es/averroes/ceipsrueda/Protocolo%20Padres%20Separados.pdf>).

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren 2005eko maiatzaren 18ko ERABAKIA banandutako edo dibortziatutako gurasoek bere seme-alaben ikasketa-prozesuaren eta integrazio sozioedukatiboaren gaineko informazioaren inguruan. Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza Govern de Les Illes Balears: <http://boib.caib.es/pdf/2005080/p33.pdf>.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

DIBORTZIO BATEN ONDOREN IZATEN DIREN OHIKO ERREAKZIOAK

(Martínez-Pampliega, Iriarte eta Sanz, 2014)

0-2 URTEKO HAURRAK

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak	Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua
<ul style="list-style-type: none">• Jokabide erregresiboak.• Adin horretan, haurrak ezin ditu hitzez adierazi bere sentimenduak. Horren ordez, aurretik garatutako eta ezarritako trebetasunak eta zereginak galtzen ditu (lehen arazorik gabe jaten zituen gauzak baztertzea, berriz ere pixa gainean egitea eta abar).• Muturreko jokabide-aldaketa.• Isolamendua eta apatia (arrazoi fisikorik ez dagoenean). Esplorazio- edo gizarte-jarreretikiko interesa galtzea.• Neurritz kanpoko negarra, zaintzaile nagusiak lasaitu ezin duena. <p>Arazo horietako bat luzaroan irautea (6 hilabete, adibidez) eta batzuk aldi berean agertzea ere kontuan hartu beharreko seinaleak dira.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Aurreikusitako programa batekin eguneroko errutina batzuk ezartzea.• Etsaitasuna txikiagotzeko ahal den guztia egitea, baita hurren neurritz kanpoko jokabideen kasuan ere. Errespetuaren eredu izatea eta eztrandak saihestea.• Seme edo alabarentzako ahalik eta egonkortasun eta babesik handiena bilatzea. Haserrea, depresioa eta beste emozio mingarri batzuk gainditzeko laguntza eskatzerakoan proaktiboa izatea.

3-5 URTEKO HAURRAK: ESKOLAURREKOAK

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak	Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua
<ul style="list-style-type: none"> • Nahasmendua, okerreko ideiak eta erruduntasuna. Haurrak batzuetan errudun sentitzen dira, eta beren jokabideak gurasoen banantzea eragin duela pentsatzen dute (zaratatsuak edo bihurriak izateagatik, adibidez). Kezkatuta egon daitezke agian beren “gaiztotasunak” dibortzioa eragin duelako, eta “zintzoak” badira gurasoak berriz elkarrekin egongo direla pentsatzen dute. • Erregresioa edo atzerakada. Fenomeno hori adin honetan ere gertatzen da, eta antsietateari eta tristurari ematen zaion erantzuna izaten da. Haurrak segurtasuna ematen dieten panpinak, tapakiak eta abar erabiltzen dituzte berriz, eta batzuetan esfinterrak kontrolatzeko arazoak ager daitezke. • Amorrua eta agresibitatea. Aldaketak gerta daitezke agresibitatea adieraztean. Gerta daiteke, halaber, jokabide agresiboak areagotzea jolastean eta haurraren harremanetan (etxean zein eskolan). Zenbaitetan, kontrakoa gertatzen da; jokabide agresiboa murriztu egiten da, eta haurra beldurriago agertzen da. • Segurtasunaren beharra. Batzuetan, hurrek mendetasun handiagoa dutela ikusten dute gurasoek. Mendetasun horren erakusgarri, mainak egiten dituzte, hankei eragiten diete, eta harreman fisikoa, zainketak eta babes bilatzen dituzte edonorengan, baita pertsona ezezagunengan ere. • Beldurrak. Adin honetako hurrek gaitasun mugatua dute beren bizitzan gertaera nahasiak ulertzeko. Batzuetan fantasia kezkarriak izaten dituzte (gurasoetako bat suntsitzen dela, adibidez), gurasoak beren aurrean liskarrean aritu direnean batez ere. Adin honetan, haur batzuek ordezkagarriak direla sentitzen dute, eta gurasoetako batek bikotekide berria aurkituz gero hura eurak baino gehiago maiteko omen duelako kezkatzen dira. • Beldurrei dagokienez, ohikoenetako bat abandonatuta geratzeko beldurra izaten da. Lehen inolako arazorik sortzen ez zuten ohiko banaketak (eskolara joatean, adibidez), zail bihur daitezke. Batzuetan beldur dira aita eta ama elkar maitatzeari utzi badiote eurak ere aurrerantzean maiteko ez dituztelako. 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurrei beti zainduta egongo direla eta aitaren zein amaren maitasuna inoiz desagertuko ez dela ziurtatuko dieten froga garbiak eta sarriak eskaintzea. • Haurrari segurtasun-sentsazioa ematea eta inoiz huts egingo ez dioten pertsonak badituela erakustea. • Haurraren ingurunean igurikapenei eta mugei dagokienez sendotasuna sortzea. Bi gurasoekiko harremana erabakigarria eta oso beharrezkoa da adin honetako haurrentzat (betiere gurasoek neurritz kanpo jokatzen ez badute eta ezegonkorregiak ez badira). • Haurrei gida eta egitura bat eskaintzea eta, era horretan, ingurune egonkor eta osasungarri bat sortzea. Eskolaren egonkortasun-zeregin hori funtsezkoa da haurrak egokitzeko. • Haurren beldurrak errespetatzea eta horietaz barre ez egitea. Garrantzitsua da gurasoen haus-turaren erantzuleak ez direla berriz ziurtatzea.

6-8 URTEKO HAURRAK

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak

- Min eta tristura handia. Negarra ohikoa izaten da. Beren minaren guttiz jakitun dira, eta zail egiten zaie kontsolamendua aurkitzea.
- Etxetik joan den aita edo amarenganako irrika. Haur asko beraiekin harreman txikiagoa duen aitak edo amak abandonatu eta baztertu egin dituela sentitzen dute.
- Berdinenganako, anai-arrebenganako eta beraiekin bizi den gurasoarenganako agresibitate handiagoa. Batzuetan, haurra adorerik gabe egoten da gutxien ikusten duen gurasoaren aurrean, eta ez du inolako agresibitatearik agertzen haren aurka, edozein haserre-adierazpenek harengandik are neurri handiagoan urrunduko dutelakoan.
- Adiskidetzearen inguruko fantasiak. Haur batzuek itxaropen horri heltzen diote, baita gurasoak bigarren aldiz ezkontzen direnean ere.
- Leialtasun-gatazkak. Bereziki problematikoak izan daitezke adin honetan. Aitak edo amak haurra beste gurasoa baztertzera bultzatzen duenean, haurrak ez daki nola aurre egin maitasunaren eta leialtasunaren arteko borroka-sentimendu horri. Haurrak bi gurasoekin leial jokatzeko saiatzen dira ezkutuan, baina asko sufritzen dute eta arazo psikologikoak izaten dituzte horregatik.

Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua

- Haurrak bi gurasoekin harreman positiboak izatera animatzea eta baten edo bestearen alde egitera ez behartzea. Oso garrantzitsua da haurra jagoletzari lotutako gatazketatik urruntzea.
- Haurrak gurasoen desadostasun eta amorruaz babestea. Ez dira parte hartzera bultzatu behar. Gurasoetako bati buruzko kritikak saihestea haurraren aurrean. Gehien behar dutena gurasoek segurtasuna ematea eta horretarako denbora hartzea da. Funtsezkoa da haurrak ziur egotea bi gurasoekin harreman onuragarria izateaz.
- Adin horretan, funtsezkoa da beraietaz kezkatzen den pertsona bat badutela sentitzea.
- Haurrak gurasoetako batengandik luzaroan bananduta egon ez daitezen saiatzea. Haurrek maiz ikusi behar dituzte bi gurasoak.
- Haurrek banantzeari buruz egiten dituzten galderari erantzutea, baina xehetasun guztiak eta erru-mezuak ematea beharrezkoa ez dela kontuan hartuta.

9-12 URTEKO HAURRAK

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak

- Hausturarekiko axolagabetasuna. Adin honetako haur asko axolagabe agertzen dira hausturaren aurrean; horrela egiten diete aurre hain intentsitate handiko sentimenduei.
- Hira kontzientea eta intentsitate handikoa. Beste sentimendu mingarriago batzuk (hala nola tristura edo babesgabezia) arintzeko erabiltzen dute.
- Identitate-sen handia. Gurasoak ezkondu dituzten haurrekin alderatuta “desberdin” senti daitezke.
- Sintoma fisikoak: buruko mina, urdaileko mina, arranpak hanketan eta asma-atake akutua. Ohikoak izaten dira eta estres handiko aldiei lotuta egoten dira.
- Beste gurasoaren aurkako aliantzak. Arazo handia izan daiteke adin honetako haurrentzat, bereziki ahulak baitira gurasoetako batek bestearen kontra sentitzen duen hirarekin bat egiteko. Besteak erabiltzen duela eta iruzur egiten diola sentitzen duen gurasoak sortu nahi izaten ditu aliantza horiek. Premia handia duten haurrentzat oso zaila da gurasoetako bati gogor egitea hark bere ondoan badago “berarekin” dagoela esaten dionean. Haurrak garrantzitsua eta beharrezkoa dela sentitzen du. Dena dela, egoera horretan dauden haurrak ezeگونkorragoak izaten dira emozionalki, eta deprimetuta sentitzen dira.
- Urruntzea, aurre egiteko modu gisa. Batzuetan, seme-alabak neurri handiagoan inplikatzeko dira berdinen taldean, eskolan, kirolan eta beste jardueran batzuetan. Hori askotan seinale positiboa izaten da, eta bultzatu egin behar da. Izan ere, oso gogorra da haur batentzat gehiegizko zama duten gurasoek erabaki batzuk hartzea, anai-arreba txikiak zaintzea edota etxeko lanak edo laguntza-lanak egitera behartzea.

Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua

- Seme edo alabari bere bizi-erata egiten uztea (eskolan, kirolan eta berdinen taldeko jardueretan).
- Haurrari bi gurasoekin harremanetan egoteko aukera ematea eta baten edo bestearen alde egitera ez bultzatzea.
- Bi etxeetan eta eskolan arauarekin eta igurikapenekin irmo jokatzeko.
- Oso garrantzitsua da haurraren aurrean gatazka saihestea, batez ere gatazka konpontzen ez denean eta suntsizaitza denean. Haurrek gizarte-trebetasun positiboak ikasten dituzte gatazka bat negoziatzekoaren eta konpromisoaren bidez nola konpontzen den ikusten badute, baina hori ez da arrazoia haurrari gatazka agerian uzteko.
- Haurrari behin eta berriz gogoraraztea bi gurasoak maitatzeko baimena duela. Hori lortzeko, haurra deitzera edo gutunak idaztera animatu daiteke, edota egun berezietan beste gurasoarentzako opariak egiten lagun dakioko. Gogoan izan behar da bi gurasoak maitatzeko eskubidea dela seme edo alaba bati egin dakiokoekin oparirik onena.
- Bi gurasoek buruzko gauza positiboak esatea, dohain batzuk goraiatzeko eta amorruek eta desadostasuna alde batera uztea. Haurrari bi gurasoen ezaugarri positiboetan pentsatzen eta haietaz harro egoten laguntzea.

13-18 URTEKO HAURRAK

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak	Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua
<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunaren inguruko kezka. Nerabeek eurekin gertatuko denaz kezkatzeko joera izaten dute. Etorkizuneko harreman intimoez kezkatzen dira. Dibortzioa seme-alabak maitatuak eta onartuak izateko gogoz dauden garai batean gertatzen denez gero, etorkizunaren inguruko zalantzak antsietatea eragiten die. Batzuetan, bizitza osoan harreman gatazkatsuak eta iragankorrak izango dituztela pentsatzen dute nerabeek. • Sexu-portaera goiztiarrak. Gurasoen sexu-jokabidea ikusten dutenean (bikote berriekin hitzordu asko izaten dituztenean, adibidez) eta mugen zorrotasuna eta seme edo alabarenganako arreta murrizten denean agertzen dira nagusiki. • Atsekabea eta galera-sentimendu sakona, hutsune- eta neke-sentimenduekin batera. Batzuetan, haurtzaroko familiaren falta sumatzen dute. Halaber, bi modura sentitzen dute galera: izan zena berriz izango ez den familiaren galera, eta heltzen ari direlako uzten ari diren familiaren galera. • Munduarekiko hira eta, bereziki, gurasoenganako hira. Oso ohikoa izaten da sentimendu hori, eta adinari lotuta dago batetik, eta kalteberatasunaren eta botere-galeraren sentimenduak estaltzeko gogoari bestetik. Askotan, gurasoenganako hira izaten da, banantzeko erabakia beren bizitzaren garai horretan hartzean berekoieriaz eta begirunerik gabe jokatu dutela uste baitute nerabeek. • Aldaketak gurasoen pertzepzioan. Gurasoak ahul eta mendekotzat edota indartsu eta hunkiezintzat har ditzakete nerabeek. Halaber, batzuetan ahultasun-seinaleak puzten dituzte eta aitak/amak tratu txarrak jasaten dituela uste dute. • Leialtasun-gatazkak. Gurasoetako batek bere gatazketan laguntzeko nerabearengana jotzen duenean gertatzen dira. Horrek gatazka handiak sortzen ditu seme edo alabarengan, eta erruduntasuna, etsipena eta depresioa eragin ditzake. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nerabearen bizitzan inplikatzeko. Garrantzitsua da nerabeak inguruan dituen pertsonak bere bizitzan inplikatzeko direla sentitzea. • Bi gurasoekin harremanak izateko programa malgu bat izatea funtsezkoa da. • Seme-alaben jarduerak eta jokabidea kontrolatzea. Adin talde honetan, jokabiderako mugak eta gidak behar dira. Zenbaitetan, gurasoak lasaitu egiten dira nerabeek behar dituzten egiturak eta mugak ezartzean. Horren ondorioz, seme-alabek antsietatea izaten dute, eta errazagoa da portaera desegokiak izatea. • Irakasleek eta eskolak ezartzen dituzten mugek eta gidak antsietatea murrizten dute, eta segurtasuna ematen diete nerabeei. • Nerabeak beren gurasoen bizitza intimoaren xehetasunez babestea. Aitak edo amak beste harreman bat goizegi hasten duenean edo harreman horri buruzko xehetasun gehiegi ematen dituztenean, seme-alabak nahasita sentitzen dira. • Seme-alabak gurasoen arteko gatazkaz babestea. Batzuetan badirudi nerabeak gurasoen arteko liskarretan inplikatzeko bezain helduak direla, baina oraindik ahulegiak dira eta gurasoei errua lepora diezaiekete edota gurasoak bazter ditzakete. Hori ez da positiboa nerabeen garapen onuragarriko.

Haurrak laguntza behar duela adieraz dezaketen ohiko erreakzioak	Gurasoek eta irakasleek laguntzeko modua
<ul style="list-style-type: none"> • Heldutasun eta garapen moral handiagoa. Banantzearen ondorioa izan daiteke. Nerabeek gurasoen akatsekin ikasi egin dezakete eta pertsona hobeak eta helduagoak izan daitezke; horretarako, beren jokabidea gidatzeko ereduak bilatzen dituzte. • Rol-aldaketa familiaren barruan. Gurasoentzat, nerabeak benetako laguntza izan daitezke, baina nerabeek familia-erantzukizunetatik kanpoko bizitza egiteko astia eta baimena izan behar dute. Nerabe batzuek gurasoengandik urrunduz erreakzionatzen dute banantzearen aurrean. Oso aktibo bihurtzen dira eta denbora asko ematen dute etxetik kanpo. Baliteke krisitik urrundu eta beren burua gainkarga emozionalaz babestu nahi izatea. 	

2. ERANSKINA KLASEKO ZEHARKAKO JARDUERAK

BALIOAK ETA PRINTZIOAK	KASUAK / EGOERAK	GALDERAK
LEIALTASUNA	Juan eta Rosa zure adin bereko haurrak dira, eta oso haserre daude elkarrekin.	<i>Izan al zintezke bien laguna? Nola sentituko litzateke Juan Rosarekin zaudenean? Nola sentituko litzateke Rosa? Zer egingo zenuke?</i>
FIDELTASUNA	Martak esan dizunez, hain lagun onak zarete, "ahizpalagun" zarete esan daiteke, hau da, bizitza osoan izango zarete lagun.	<i>Hori egia dela uste al duzu? Ba al dago betiko lagunik bizitza errealean? Eta haserretzen bazarete? Zer eragin dezake haserrea? Kasu horretan, esango al zenieke beste lagunei?</i>
BETEBEHARRA, KONPROMISOA	Eskolatik ateratzean, beti korrika joaten zara amona ikustera. Amona bakarrik bizi da, eta eskertu egiten du zure bisita. Azken aldi honetan, zure lagunak futboleantzen dira eskolatik irtetean. Amari esan diozu, baina ez dizu uzten lagunekin geratu eta futboleantzen. Egia esan, amonarengana joateko gogo gutxiago dituzula eta behartuta zaudela sentitzen duzu orain.	<i>Norekin izaten da konpromisoa? Behartuta betetzen al dira konpromisoak? Non amaitzen dira konpromisoak? Ados jar al zintezkete ama eta zu? Bi gauzak egin al litezke (futboleantzen aritu eta amona bisitatzen joan)?</i>
ZINTZOTASUNA	"Neska-laguna/mutil-laguna" izango bazenu.	<i>Egia esango al zenioke beti? Engainatuko al zenuke noizbait? Noiz ez zenioke egia esango? Eta egia jakingo balu zer gertatuko litzateke? Egoeraren batean justifika al daiteke egia ez esatea? Zer ondorio ditu egia ez esateak lagunetikiko eta neska-lagun edo mutil-lagunetikiko harremanean?</i>
KONFIANTZA (<i>"lehenago edo geroago, besteek utzi egiten zaituzte"</i>)	Erpurutzoren ipuina izango da abiapuntua: gurasoek seme-alabak abandonatzen dituzte, haiei jateko zer eman ez dutelako.	<i>Hori ipuinetan bakarrik ala bizitza errealean ere gertatzen da? Zer egoeratan abandona ditzakete guraso batzuek seme-alaba? Zer alternatiba bururatzen zaizkizue?</i>

BALIOAK ETA PRINTZIOIAK	KASUAK / EGOERAK	GALDERAK
MAITASUNA	Norbait maite duzula esaten duzunean.	<i>Zer esan nahi du horrek? Zer alde dago lagun bat maitatzearen eta neska-laguna/mutil-laguna edo aita/ama maitatzearen artean? Zer ezaugarri izan behar ditu zure mutil-lagun edo neska-lagunak? Harreman hori nolakoa izatea gustatuko litzaizuke (intimitatea, zaintza, antzekotasuna, erakarpena, konfiantza, leialtasuna)? Zure ustez, zenbat pertsona maita daitezke? Eta nola?</i>
ERRUA	Imajinatu honako egoera hau: Jonek bere liburua utzi dizu fotokopia batzuk egiteko. Izan ere, zurea ikastetxean utzi duzu, eta bihar azterketa duzue. Baina Jonen liburua patioan utzi duzu, eta hartzea ahaztu zaizu.	<i>Zer gertatuko da orain? Zer egingo zenuke? Nola konpon dezakezu arazoa? Nahikoa al da “sentitzen duzula” esatearekin?</i>
ERANTZUKIZUNA	Lehengo egunean haserretu egin zinen eta amari esan zenion “nahiago zenukeela zure ama izango ez balitz”. Arratsaldean, enkargu batzuk egiten ari zela, ama erori egin da, eta orain gaizki sentitzen zara.	<i>Erorikoak zurekin zerikusia duela uste al duzu? Ongi portatzen bazara amak hobera egingo dulea uste al duzu? (haur txikiarentzat, pentsamendu magikoa, 10 urte bete arte).</i>
	Matematikako eskolan, hiru lagun problema bat ebazten ari dira: Jon, Ruben eta Alvaro. Jon ez dago ados Rubenen ebazteko moduarekin, Ruben Jon zirikatzeko hasi da, eta honako hau esan dio: “gutziz ezdeusa zara matematikan, ez etorri lezioa ematera”. Alvarok Jonen alde egin du, eta orain Ruben eta Alvaro haserre daude.	<i>Zure ustez, Jonen errua izan al da? (10 urtetik aurrera)</i>
KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA	Ezin izan zara joan Marta lagunaren urtebetetzera, amari herrira joan behar zenutela bururatu zaiolako. Martari hori azaltzen saiatu zara, baina ez dizu sinesten. Asmatu duzun aitzia dela dio.	<i>Nola sentituko zinateke? Noiz sentitu zara horrela? Zure ustez, ba al dago modurik esan duzuna frogatzeko?</i>

BALIOAK ETA PRINTZIOAK	KASUAK / EGOERAK	GALDERAK
EGOKIA ETA DESESGOKIA		<i>Egokia al da obeditzea? Beti? Eta obeditzeak lagun bat salatzea dakarrenean? Ongi pasatzea garrantzitsua al da? Eta gaixorik dagoen eta zure beharra duen lagun bat baduzu? Zer printzipiok bideratu behar dute jokabidea? (obedientzia versus gizarte-erantzukizuna versus elkarrekikotasuna)</i>
ERRUKIA	Markel triste dago, eta aitak berarekin oso denbora gutxi ematen duelako dela uste duzu.	<i>Zure ustez, nola sentituko da? Pertsona bat zer kasutan egon daiteke oso triste etxean gertatutako zerbaitengatik? Zure ustez, ba al dago Markelek egin dezakeen zerbait?</i>
TOLERANTZIA	Klasean, zure taldeko mutil bat zuekin aspertu egiten dela esaten ari da beti, eta azkenean klaseko beste talde batera joan da. Zuek ez duzue batere ongi hartu.	<i>Barka al dakiok min eman dizun norbaiti, damutu baldin bada? Eta damutu ez bada?</i> <i>Haserre bazaude, nola sentitzen zara? Eta laguna joan izana onartu ahal izango bazenu, horrek aldatuko al luke nola sentitzen zareten?</i>

3. ERANSKINA

HEZKUNTZA ARLOKO PROFESIONALAK SENTIMENDUAK LANTZEA

<p>Sentimenduak ez ukatzea eta alde batera ez uztea: <i>“Utzi negar egiteari, esker oneko izateko arrazoï asko dituzu”</i>.</p>	<p>Sentimenduak aitortzea eta haurraren gana zuzenean hurbiltzea: begietara begiratzea, eskua sorbaldan jartzea eta doinu ulerkorrean <i>“triste antzean zabitza dirudi”</i> esatea.</p>
<p>Egoera emozionalari garrantzirik ez kentzea.</p> <p>Inoiz barregarri ez uztea, inoiz ez kritikatzeko eta inoiz iseka ez egitea (bestela, ez du hitz egin nahi izango, eta dena beretzat gordeko du).</p> <p>Ez da pentsatu behar arazoa denborarekin desagertuko denik. Aitzitik, okerrera egin dezake.</p>	<p>Sentimenduak afektua eta enpatia erakutsiz balidatzea: <i>“Ulertzen dut triste sentitzea. Zuri gustatuko litzaizuke... uste dut denok sentitzen garela batzuetan horrela. Zer da zuretzat zailena egoera honetan?”</i></p>
<p>Kontua ez da:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zoriontsu izatera bultzatzea.• Eskolaz kanpoko jardura askotan inplikatzeko.• Elkartasuna erakustea, egoera emozionalak okerrera egin baitezake: <i>“Ez da harriztekoa horrela sentitzea; ez da bidezkoa gertatu zaizuna”</i>.	<p>Entzute aktiboa: bere oroitzapen eta sentimenduez hitz egin nahi badu, positiboa da entzutea. Baliteke aholkurik nahi ez izatea, entzute aktiboa baino ez.</p>
<p>Ez da nahikoa irakaslea ahaleginetan tematea. Haurrak eta nerabeak gai dira irakasleek entzun nahi ez dutela edo zintzotasun handirik gabe entzuten dutela hautemateko.</p>	<p>Gaia zuzenean planteatu daiteke: <i>“Haur eta nerabe batzuek uste dute...”</i></p> <p>Haurrak, seguru sentitzen badira, zuzeneko galderari erantzuteko prest egon ohi dira. Haurrek galderari erantzuten ez badiete, baliteke erantzutea gauza segurua ez dela pentsatzea.</p>
<p>Ez da komeni haurrek gaiaz noiz hitz egingo duten itzarotea.</p> <p>Ez da nahikoa esaldi soil bat une jakin batean. Zama emozional handiko gaiak dira, eta ez da erraza konpontzea. Temati jokatzeko eta derrigorrezkoa ere ez da komeni.</p>	<p>Zenbaitetan, beste gai bati buruz hitz egiten hasten dira eta, derrigortuz gero, <i>“nahiago dut ez galdetzea. Ez dut hitz egin nahi”</i> esaten dute. Kasu horretan, nahikoa izango da irakasleak haurrari nahi duenerako beti prest egongo dela adieraztea. Halaber, orientazio-zerbitzura bidera dezake haurra.</p> <p><i>“Ikusten dudanez, ez zaude zure onenean. Hitz egin nahi baduzu, zure esanetara naukazu. Halaber, garrantzitsua da jakitea XXekin ere hitz egin dezakezula. Goizetan egoten da bere bulegoan. Badakizu harekin hitz egiten duzun guztia konfidetiala dela”</i>.</p> <p>Orientazio-zerbitzuan: Kezkatzen duten gai zehatzak definitzen laguntzea haurrari eta harekin soluzioak aurkitzeko lan egitea.</p>

4. ERANSKINA

INFORMAZIOA BILTZEKO FITXA

Ikaslearen izena:

Maila:

1. gurasoaren izena:

2. gurasoaren izena:

Larrialdi-kasuan, deitu telefono-zenbaki hauetara honako ordena honetan:

Larrialdiko telefonoak:

1.

Ikaslearekiko lotura:

2.

Ikaslearekiko lotura:

3.

Ikaslearekiko lotura:

Larrialdi medikoaren kasuan, ados nago nire semea/alaba osasun-zentro edo ospitale batera eramatearekin, beharrezkoa izanez gero.

Nire semeak/alabak hezkuntza-orientazioa edo orientazio psikologikoa behar badu, ados nago ematearekin.

Ados nago nire semea/alaba ikastetxeak programatutako jarduera-planean proposatzen diren eskola-jarduera eta txango guztietara (Estatu barruan zein kanpoan) joatearekin.

Bi gurasoek eman behar dute adostasuna.

Gurasoetako bat ados ez badago, aitak edo amak berak jakinarazi beharko dio ikastetxeari.

Eranskina: 20XX-20XX ikasturterako programatutako eskola-jardueren eta txangoen plana.

Data:

1. gurasoaren sinadura:

2. gurasoaren sinadura:

5. ERANSKINA

HITZARMEN ERREGULATZAILEARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA DUEN FITXA

Ikaslearen izena:

Maila:


1. gurasoaren izena:

2. gurasoaren izena:


Hitzarmen erregulatzailearen data:

Hitzarmen erregulatzailearen erregistro-zenbakia:

Hezkuntza-arloko xedapenak (jaso idatziz hitzarmenean bildutako alderdi garrantzitsuak):



Egonaldi-erregimenari eta harremanari lotutako xedapenak (jaso idatziz hitzarmenean bildutako alderdi garrantzitsuak; Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino ez da aplikatu behar):



Ohar garrantzitsua: arestian jasotako xedapenetan gertatutako aldaketa oro ikastetxeari jakinarazi beharko diote gurasoek.

Data:

1. gurasoaren sinadura:

2. gurasoaren sinadura:

6. ERANSKINA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN JARRAIBIDEAK ESKOLA ARLORAKO BANAKETA EDO DIBORTZIO EGOERETAN



JARRAIBIDEAK, EAEko HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO IKASTETXEEN ZUZENDARITZARENAK, GURASO BANATU EDO DIBORTZIATUEK EDO ELKARBIZITZA ETEN DUTEN IZATEZKO BIKOTEEK INFORMAZIOA ESKATZEKO ETA IKASTETXEA ALDATZEKO ESKATZEN DUTEN KASUETARAKO

Ikasleen gurasoek eskubidea dute, besteak beste, seme-alabentzat nahi duten hezkuntza mota aukeratzeko eta ikastetxea aukeratzeko (Kode Zibilaren 154. art.). Hala ere, Administrazioaren eskumena da legez arautzea ikasleak ikastetxeetan onartzeko prozedura eta irizpideak. Horrela, bada, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak orokorrean ezartzen du oinarriko zein arau aplikatu behar diren ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan ikasleak onartzeko. EAEn, berriz, matrikulazio prozesua arautzen dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako urtero argitaratzen dituen dekretuek.

Adin txikikoen kasuan, ikastetxea aukeratuta hezkuntza mota jakin bat jasotzeko eskubidea guraso-ahala egikaritzean gauzatzen da, eta Kode Zibilaren 156. artikulua zehazten duenez, guraso-ahala bi gurasoek batera egikaritzeko dute edo horietako batek bakarrik, baina bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasunaz.

Banaketak edo dibortzioak direla eta, familia-epaiek epaia eman behar dute guraso-ahalaren inguruan. Normalean guraso biek izaten dute, epaian esanbidez kentzen denean izan ezik; izan ere, halakoetan, batari edo besteari ematen zaio adin txikikoak zaindu eta babesteko ardura. Dena den, beste aukera bat dago, Kode Zibilaren 92. artikuluari 15/2005 Legeak ematen dion idazkeran arautua: zaintzeko eta babesteko ardura guraso biei ematea edo bien artean banatzea ardura horren berezko funtzioak, beti ere adin txikikoaren interes gorena babesteko. Nolanahi ere, epaileek mantendu egiten dute epaian ezarritako araubidean jasotzen ez diren alderdien gaineko neurri zehatzak hartzeko eskumena.

Guraso biek guraso-ahala partekatzen dutenean, seme-alaben ikastetxea aukeratzeko eskubidea benetan betetzen dela bermatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak atal bat sartuko du matrikulazio-inprimakian eta dagokion aplikazio informatikoan, familia-egoera hori azaldu eta guraso bien posta-helbidea jasotzeko; hala, egindako eskabidearen berri eman ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzak beste gurasoari.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak berak irakasleen eginkizunen artean sartzten da aldian-aldian familiei seme-alaben ikasketa-prozesuaren berri emateko ardura eta prozesu horretan laguntzeko modua bideratzeko ardura. Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-etapetako curriculumak ezartzeko eman dituen dekretuek eta horiei dagozkien ebaluazio-aginduek, berriz, zehaztu egiten dute nola parte hartu familiek seme-alaben hezkuntza-prozesuan eta zein prozedura jarraitu familiei informazioa emango zaiela bermatzeko.

Familia-harremanen lege-araubidea arautzea ez da administrazioaren eskumena. Alabaina, Hezkuntza Administrazioaren betebeharra da bere eskumenak



erabiltzea, gaiaren inguruko epai judizialak betearazi, eta Kode Zibilaren 92. artikulua jasotzen duen lege-agindua errespetarazteko; izan ere, artikulua horrek ezartzen duenez, egoera horiek ez dituzte gurasoak aske uzten seme-alabekiko dituzten betebeharrak, eta ondorioz ezta haien hezkuntzaz duten erantzukizunetik ere.

Horrela, bada, gizarteak Administrazio honi egiten dion eskaera bati erantzuten diogu; izan ere, ikastetxe guztiei jarraibideak emateko eskatzen digu, guraso banatu eta/edo dibortziatuekin ikastetxeek dituzten harremanak arautzeko.

Ondorioz, eta antolamendu-eskumen horiek erabiliz, **JARRAIBIDE** hauek ematen ditut:

1.- Guraso banatu edo dibortziatuen edo elkarbitzita eteten duten izateko bikoteen kasuan, horietakoren batek lehen aldiz eskatzen duenean ikastetxean izena emateko edo ikastetxez aldatzeko eskatzen duenean, epaiaren edo behin-behineko neurrien autoaren xedapen-zatia aurkeztu beharko du eskabidearekin batera. Hezkuntza-gaietan guraso-ahala egikaritzeari dagokionez, beste gurasoaren adostasuna beharrezkoa den ala ez jakiteko, epaiak edo autoak zer ezarri, horixe bete beharko du zuzendariak.

Eskatzaileari berehala itzuliko zaio agiri hori, espedientean gorde barik. Espedientean, idazkariaren ohar bat baino ez da idatziko, hezkuntza-erabakiei buruz xedatutakoa jasotzeko.

2.- Hezkuntza-kontuetarako erabakirik hartu ez balitz, eskabidearen kopia bidali beharko zaio beti beste gurasoari, horrek esleituta izan ala ez ikaslea zaindu eta babesteko ardura, salbu guraso-ahala esanbidez kendu zaiola jasota dagoenean.

Informazio hori, hartu-agiri eta guzti, guraso horren helbidera bidaliko da posta ziurtatuz. Izan ere, ikastetxeak helbidea ez badu, guraso horren helbidea eskatuko du eskaera izapidetzeko baldintza moduan.

Bertan, adierazi egingo da eskabidea bideratu egingo dela, baldin eta, informazio hori jaso eta 10 egun balioduneko epean, guraso hartzaileak ez badu ikastetxean aurkezten ikastetxea aldatzearen kontrako agiririk. Halakorik aurkeztuz gero, berriz, eskatzaileari berehala jakinaraziko zaio bere eskabidea bideratu egingo dela baina horretarako baimena ematen duen erabaki judiziala jaso eta gero.

3.- Seme-alabak zaindu eta babesteko ardura esleituta ez duen aita edo ama banatu edo dibortziatuak erabili egin ahal izango du seme-alabak ebaluatzeko prozesuaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, beti ere guraso-ahala esanbidez kendu ez bazaio. Informazio hori izateko, zuzendariari eskatu beharko idatziz, eta idazkian azaldu egin beharko du zein helbidetara bidali behar zaizkion deialdiak eta jakinarazpenak.

2. atalean aurreikusi denez, epaiaren edo behin-behineko neurriei buruzko autoaren xedapen-zatia aurkeztu beharko da, hezkuntza-gaietarako guraso-ahala egikaritzeari buruz xedatzen duena jasotzeko, baina berehala itzuli beharko da, eta itzuli ere espedientean horren kopiarik gorde barik.



4.- Informazio-eskabidea aurreko atalean azaltzen den moduan jaso eta gero, ikastetxeak beste gurasoari posta ziurtatuz -hartu-agiri eta guzti- jakinarazio dio eta ohar bat jarriko du. Bertan, labur-labur azalduko da zer jasotzen duen araubideak guraso-ahalaren hezkuntza-alderdiak erabiltzeari buruz; horrela, erkatu egingo da ea ikastetxeak duen informazioa bat datorren une horretan familia-harremanetarako indarrean dagoen araubidearekin; izan ere, judizialki aldatuta egon daiteke.

5.- Beste gurasoari informazio-eskabidearen berri eman eta gero, hura jaso eta hamar egun balioduneko epearen barruan ikastetxean egiaztatzen ez badu aldatu egin dela seme-alabak izateko araubidea edo guraso-ahala erabiltzeko modua, eta ondorioz ezin dela eskaera onartu, orduan guraso informazio-eskatzaileari automatikoki eta aldi berean bidaliko zaio ikaslea zaindu eta babesteko ardura duen pertsonari entregatzen zaion dokumentu-informazio guztia. Era berean, tutoreak eta bestelako irakasleek ahoz eman ahal izango diote egoki deritzoten informazio guztia.

6.- Horrela definitutako egoera berez luzatuko da denboran, harik eta guraso-ahalaren araubidea adierazitako zentzuan aldatu dela egiaztatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 18a
IKASTETXEEN ZUZENDARIA
Marcelino Hernández Garduño